



GOIERRITARRA

**Gazte dator
udaberria**




h e m e n

DISEINU ALTZARIAK

URDANETA KALEA, 56 • 20240 ORDIZIA

TFNOA./FAXA: 88 46 41

KALITATEA ETA ZERBITZUA ZURE ESKURA



**ERAKUSKETA ARETOA:
USURBE ANTZOKIPEA
BEASAIN**

● *Diapositibak*

- ✓ apirilak 14, Usurbe Antzokian, Inurrategi anaiak, 19:30etan.
- ✓ apirilak 18, Aizkorri elkartean, Joseba Ugaldere 'Akonkagua', 20:00etan.

● *Ahozko transmisioa*

- ✓ apirilak 15, Patxi Zubizarreta, 'Kontu zaharrak', Batzar Aretoan, 17:00etan.
- ✓ apirilak 16, Itziar Zubizarreta, 'Itsasoko ipuinak', Batzar Aretoan, 17:00etan.
- ✓ apirilak 17, mahaingurua, 'Dibertsioak', Batzar Aretoan, 18:30etan.

● *Kantaldia*

- ✓ apirilak 20, OSKORRI, Loinazko San Martin plazan, 19:30etan.



ZERBITZUAK:

- ✗ Ordubeteko errebelatua
- ✗ Diapositiben errebelatua
- ✗ Anpliazioak
- ✗ Argazkigintza digitala
- ✗ Etxeko bideoen kopiak
- ✗ Diapositibatik papelera kopiak
- ✗ CD-an errebelatu eta kopiak
- ✗ Negatiborik gabeko kopiak



Domingo Unanue Plaza, 1
☎ 88 93 25
ORDIZIA



**GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA**

Argitaratzailea:
Goierritarrak Kultur Elkartea

Dorre-etxea, 1
(Postetxe gainean)
124 posta-kutxa
20240 Ordizia
Tfnoa: 88 96 12
Faxa: 88 27 19

Zuzendaria:

Loinaz Agirre

Maketazioa:

Mikel Albisu

Publizitatea:

Josune Agirre eta Argider
Mujika

Erredakzio Batzordea:

Dionisio Amundarain, Jon Ara-
no, Mikel Albisu, Joseba Telle-
ria, Ane Martin, Loinaz Agirre
eta Estitxu Imaz.

**Zenbaki honetako kronista eta
kolaboratzaileak:**

Aitor Calvillo, Joseba Telleria,
Xabier Urteaga, Rufino Iraola,
Koldo Urrestarazu, Urko Irastor-
za, Josune Aldabe, Edurne Albi-
zu, Izaskun Salazar, Josune
Amondarain, Nagore Goiburua,
Gabino Murua, Antonio Berasa-
tegi, Andoni Sarriegi, Txaro Fer-
nandez eta Jesusu Martinez.

**Fotokonposizio eta maketa-
zioa: GOIERRITARRA.**

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga
9, Oñati)

Tirada: 6.300 ale.

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

**GOIERRITARRAK ez du bere
gain hartzen derrigorrez, al-
dizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzukizunik.**

HAMABOSTALDIAN NABARMEN



**Irakurzaletasuna suspertzeko
literatur tailerra Beasainen**

Euskal Idazleen Elkartea-
ren eta Beasaingo Udal
Euskaltegiaren babesean
antolatu du Kulturkidek
(Kultura eta Ikerketa Di-
namizatzeko Ekimenak),
apirilaren 11tik aurrera,
literatur tailerra. Literatur
tailer horren helburua ira-
kurlego helduari euskal li-
teratura irakurtzeko grina
piztea da. Halaber, idazle
on izanagatik jendeak ko-
munikabideetan eta libu-
rudendetan horren errez
aurkitzen ez duen literatur
sortzaile askoren berri ere
eman nahi litzateke tailer
honetan.

Xabier Pardo irakasle-
ak zuzenduko du tailerra.
Ihardun horretan, irakur-
gai dauden lau liburu ho-
riek izango dira hizpide.
Aingeru Epaltzaren 'Ur
Uherrak' (Pamiela), Jon
Alonsoren 'Katebegi gal-

duak' (Susa), Rafa Egigu-
renen 'Ilargia putzuan
ageri' (Erein) eta Juan
Luis Zabalaren 'Galdu ar-
te' (Susa).

Solasaldiak


Irakasleak gidatuko duen
irakurgaiak gain, irakurle-
ek idazlearekin solasean
aritzeko aukera izango
dute, bertara, liburua ira-
kurri ondoren idazlea
gonbidatu eta berarekin
irakurtzean sortu zaizkien
galderei edota jasotako
inpresioari buruz mintza-
tzeko aukera izango dute.

Dagoeneko badira Bea-
sainen bi talde, bat goize-
an arituko dena eta beste
bat arratsaldean arituko
dena. Informazio gehiago
nahi duenak deitu Kultur-
kidera (161840) edo Udal
Euskaltegira (889094).

BOTA BERTSOA



Irati Goikoetxea



Zaborra berziklatu

*Doinua: Nafarroako men-
di gainean*

Kristalarekin ontzi berdera
denok gaitezen ingura,
papera eta kartoia berriz
ontzi urdinean barrura,
'Tetra Brik'zkoak ontzi laranja-
sartzeko jarri ardura,
soberakinak ongi sailkatzen
hartu dezagun ohitura. (bis)

Apaingarri ta jostailuk landuz
berziklatzeko aukera,
Sasietaren gidaripean
emana dugu hasera,
birrerabiliz alda dezagun
orain arteko jarrera,
natura zaintzen saia gaitezen
natura denok baikera. (bis)

*Eusko Jaularitza-
ko Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta*

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Beldurrik batere ez: lotsa

Ordiziako batzokiak hainbat eraso jaso du, eta bakarren bat ere izan du Beasaingoak. Su ematen, ordea, Segurakoarekin hasi ziren eta Idiazabalgoa izan da azkena. Badirudi zenbait goierritar kaputxadun obsesionalurik dagoela Eusko Alderdi Jeltzalearekin.

Espainiaren hatzaparretatik askatu nahi dute Euskal Herria, baina badirudi erasoak antolatzeke unean Espainia urrunegi gelditzen zaiela, eta alboan bilatu dute etsai errazago bat.

Lehia politikoan gurekin ezin, eta beldurraren estrategiari heldu diote, ehun urte dituen alderdi bat etsipenera eraman nahiean. Eta ez dira konturatzen zerbaitegatik bete dituela ehun urteak.

Guzti honekin euren proiektu politikoaren frakaso agerian uztea besterik ez dute lortzen ordea. Izan ere, nola lortuko dute Euskal Herria askatzea, euskaldunon kontrako erasoak burutzen?

Agortu zaie denbora, eta ENAMaren desesperaziorako herria aurrera doa bere martxan, beraiei bizkarra emanaz (grebarako azken deialdiak jaso zuen desautorizazio galantak argi frogatu zuen herriaren borondatea). Beraz, trena badoa, eta faxista hauei frakasoa besterik ez zaie gelditzen. Eta amorrua.

Gure partetik, jaso ditugun erasoek geroz eta argiago uzten digute geure norabide politikoaren egokitasuna. Alde horretatik, beraz, beldurrik batere ez.

Lotsa bai ordea, eta galanta. Lotsa, gure bailaran

ere aguantatu beharra dauzkatugulako abertzaletasunaren historia zikintzen duten pizti amorratu horiek. Eta lotsa, eskuak odolez bustita dauzkan goierritar bat kalean dagoelako.

Goierriko EGI

Beasaingo Senideak-ekoei

Senideak-ekoek prentsaurrekoan, damutuen bila ibiltzeaz, Barne Ministrartzarekin elkarlana egiteaz eta zikin jokatzear Ordiziako Alkatea eta ni salatuz egindako adierazpenak gutxienez ere harridura sorrazaizi didate.

Ez da egia, aditzera eman nahi izan den bezala, Latasari inolako gutunik bidali diodala. Gertaera hori bistakoa eta nabarmena izanik ere, Senideak-ek, gauzak zuzendu eta argitu ordez, gezurretan oinarritutako errealtatea eraiki nahi du, inor ere pekatutik libre gera ez dadin.

Beasaingo Alkateak eskutitz hura bidali ez duen arren, orain, Txemi Arteaga auskalo zer dokumentu sinaraztera behartu izan bide du. Hori ere gezurra da eta bere familia, hori zabaldu duena, horren jakitun da.

Senideak-ek behin eta berriz eskatu digu gure eskuharmena presoen egoeraz ardura gaitezen. Gure iharduna beharrezkoa ez dela edota kaltegarria dela uste badute, esan diezagutela. Jo bezate HBko Parlamentari eta Zinegotziengana beren eskaerak kudea ditzaten.

Gure aldetik, irekita jarraituko dugu gure eskuharmena eskatzen duen edo-

zein herritar edo familiako beasaindarren egoeraz arduratzeko.

Giza Eskubideak Defendatzeko dugun fedear, presoen hurbilketa eskatzen jarraitzea, eta ENAMek euskal gizartea sartu nahi duen menpekotasunezko xantai bideak, bahiketak eta hilketak salatzea eragingo du. Baina beti ere, Euskal Herriarrok geure buruari eman dizkiogun mekanismo demokratiko eta partehartzaileen bitartez.

*Jon Jauregi
(Beasaingo Alkatea)*

Ez dugu Korrika-n parte hartu

Beasaingo Loinazpe DBHko Instituto "Berria"n, Korrika 10ean, parte ez hartzea Klaustroaren erabakia izan dela eta, idazki hau izenpetzen dugun bertako kideok, zera adierazi nahi dugu:

Gure hizkuntzaren bizi-iraupena kinka larrian dagoen une honetan egunerokoa ezinbestekoa dugu eta euskaldunoi, historikoki, ukatu dizkiguten eskubideak lortu ahal izateko euskaltzaleon elkarlana behar-beharrezkoa delakoan gaudete.

Euskararen geroa bermatzeko irakaskuntzak bere biziko garrantzia du eta horrela frogatua izan da munduan zehar hizkuntza baten berreskurapena planteatu den kasu guztietan. Beraz, Euskal Herriko Irakaskuntzako langileok erantzunkizun handia dugu hizkuntz normalakuntzan. Halaber, Euskararen aldeko ekimen ezberdinetan agente aktibak bilakatu behar dugu, hezkuntz komunitatearen

gainontzeko sektoreekin: ikasleak, gurasoak, e.a.

Euskararen berreskurapen eta normalizazio bidean gure herriak aurrera darman borrokan ekimen guztiek merezi dute begirunea eta laguntza. Zalantzarik gabe AEK-k egin eta egiten duen lanari esker, besteak beste, itxaropentsu ager gaitezke euskaldunok. Helduen Euskalduntze eta Alfabetatze arloan ohorezko tokia lortuz. Euskal gizartea aspaldi ohartu zen honetaz, hamar Korrika hauetan herriarrok AEK-aren beharra aldarrikatu baitugu lau haitzetara. ETB bera ere, honen garrantziaz oharturik edo, hamargarren edizio honetan laguntza eman dio erakunde honi. Are gehiago, EAEko eta Nafar Gobernuak jakin badakite AEK erakunde erreferentziala dela Euskararen Normalkuntzan, hots, burutu diren elkarrizketa akordioaren gorabeherak...

Hau guztia horrela izanda ere badago horrelako ekimenen aurka dagoenik, posible ote?

Idatzi hau ezin bukatuko dugu, Euskal Herriko Korrikalari eta laguntzaile guztiei gure zorianik beroena eman gabe eta, era berean, gure salaketarik gogorrena Demokraziaren izenean eta Elebitasunaren mamu faltsua banderatzat harturik, euskararen aurka dihardutenei.

Frankismo garaietan bezalaxe, gaur ere giltzapera-tuko al dituzte gure hizkuntzarekiko dauden adierazpenak eta aldarrikapenak?

"Izkutua uzteko garaia badator".

*Lurdes Zuaitz
(eta beste LABkideak)*

TXANDAKA

Eguraldi gorria

“- Cer dempora modu eiten do aldeotan? - Guztiz charra, Jaune, illabete baño geyao da eurie eiten ez dola. - Baño ordecon eun ederrac eta garbi tare ta campoz gozatzen e uzten doe. - Ori ona izango da paseatzen doen jaunchontzat, baño lurre landuz vici gueanoc ezteu orla uste”. Otaegi zegamarrak, orain 130 urte jasozuen elkarriketa hau.

Gauzak, hortaz, ez dira asko aldatu. Ez, jakina, otsail-martxoak horrelatsukoak izan ditugulako bakarrik, badauki euria gogotik botatzen ere. Eguraldi ederra eta eguraldi gorria gauza bera ez, baina gauza beraren bi aurpegiak direla esan nahi dut, alegia. Lehen bezala orain eta, seguru izan, gero ere.

Eta ez eguraldi kontuetan bakarrik. Gauza gehienetan dela horrela esango nuke, ez igoal-igoal, baina antzera. Ederra izango da Madrildik Sevillara AVEn joatea, baina, ordekoan, tren seguruagoa ipintzeko dirua falta Uhartan eta eguraldi gorria han. Abiadura Handiko Trena ere dotorea izango da, eguzkiaren pareko, Donostiako jaunchoa-rentzat; Goierriko necazariak, pasatzen ikustearekin konformatu beharko du. Badauki, tren batzuk dotoreak izateko, beste batzuk eskasxeagoak beharko dutela. Beti izan da eguraldi gorria.

Antonio Berasategi



Nork irabaziko du Euskal Herriko Txirrindulari Itzulian?



Ruben eta Xabi

11 urte, ikasleak
zegamarrak

Olanok. Indarrean dago eta gure nahia behintzat hori da. Bera gainera bertakoa da.

Jaun eta Aritz
10 eta 11 urte, ikasleak
zegamarrak

Olanok. Mendian erasotuko du. Eta segundu pare bategatik irabaziko du.



Alberto Biain
38 urte, langilea
Segurakoa

Dufauxek. Kronoeskaladan erabakiko da lasterketa. Euskaldunetan lehenengoa Aitor Garmendia izatea nahiko nuke.

VOLVO

TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a

☎ 88 17 00 - 88 17 04

BEASAIN



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 88 87 02
BEASAIN



MUJIKA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19

☎ 88 11 94

ORDIZIA

ZINEA

GOIENIZ:

Apirilak 17, 'Riff-Raff', Usurbe Antzokian, 21:00etan.

LEGORRETA:

'Apocalypse now'. Apirilak 14, 20:30etan, Herri Zinema.

'Pena de muerte'. Apirilak 21, 20:30etan, Herri Zinema.



BEASAIN:

'Michael Collins'. Ostirala 11: 22:15; larunbata 12: 19:30 - 22:15; igandea 13: 17:00 - 19:30 - 22:15; astelehena 14, 19:30.

ORDIZIA:

'La guerra de las galaxias'. Ostirala 11: 22:15; larunbata 12: 19:30 - 22:15; igandea 13: 16:45 - 19:30 - 22:15; astelehena 14, 19:30.



'Riff-Raff'

(Britainia Handia, 1990)

Filme honek hiri handian baztertuta eta etorkizun garbirik gabe bizi diren gazte batzuen gorabeherak azaltzen dizkigu.

Legearekin arazoak izan dituen igeltsero bat beste lagun batzuekin batera okupatutako etxe bat konpontzen ari da, sekula beraiena ez dela izango jakin arren. Batetik bestera dabilen neska batek taberna zulotan abestuz eta kantarientzako frogatuta aurkeztuz iristezina dirudien aukera bat itxoi ten du. Hondakinen artean loratzen da —eta ihartzen ere— historiarik gabeko gazteen istorioa, langabezia, droga, etxebizitza beharra, nagusien ustiapena, lan istripuak, sindikatuen axolagabeberia... bidaia lagun.

'Raining Stones', 'Ladybird, Ladybird', 'Agenda ezkutua', 'Lurra eta askatasuna' eta 'Carlaren kontua' filmeen egileak umorez babesten ditu 'Riff-Raff' deituriko deserrotu hauen nahigabeak, ohikoa duen kritika sozialaren artean atsegin pittin bat txertatuz.

BERTSOAK

BEASAIN:

Apirilak 18, A. Jimenez, H. Zeberio eta G. Ojangu-ren, Arrano elkartean, 20:30etan.

ITSASONDO:

Apirilak 12, N. Elustondo, I. Karrera eta E. Goikoetxea, Arbelaitz elkartean, 20:30etan.

GABIRIA:

Apirilak 19, bertsolari gazteen txapelketa, Osinalde elkartean, 21:00etan.

ZEGAMA:

Apirilak 11, N. Elustondo, I. Eguren eta I. Zubeldia, 20:30etan, Ostatuan.

HITZALDIAK

BEASAIN:

Apirilak 16, 'Droga legalizazioa', Gazte Asanbladak antolatuta, Udaletxeko Kultur Aretoan, 20:00etan.

ITSASONDO:

Apirilak 23, 'Eguraldia eta tenporak' Pello Zabala-ren eskutik, 20:00etan, Erretore etxean.

LAZKAO:

Apirilak 23, 'Era baten bukaerara bidaia' hitzaldia, Iñaki Irazabalbeitiaren eskutik, Udaletxeko Batzar Aretoan, 19:00etan.

MUSIKA

BEASAIN:

Apirilak 17, piano-kontertua Arkaitz Mendozaren eskutik, 20:00etan, Usurbe Antzokian.

ORMAIZTEGI:

Apirilak 11, Tan-ceti, Fundiziyue, Zilbor estea eta Mesias berriak, Itxune tabernan, 22:30etan.

Apirilak 18, S.E. Soul Band, Zumarragako taldea, Itxune tabernan, gaueko 10.30etan.

ANTZERKIA

ORDIZIA:

Apirilak 18, Tanttaka taldearen 'Todo Shakespeare (o casi)', Herri Antzokian, 22:15etan. 'Antzerkiaren Garaia' programaren barruan.

IKUSENTZUNEOAK

ITSASONDO:

Apirilak 24, 'Lera-txakurrak' diapositiba-emanaldia Joseba Iribarren eskutik, 20:00etan Erretore etxean.

LAZKAO:

Apirilak 21, 'Urumea' 'ikusentzunezkoa, Josu Ezaguirreren eskutik, Udaletxeko Batzar Aretoan, 21:00etan.

IKASTAROAK

BEASAIN:

Apirilak 12, 19 eta 26, kamisetak margotzeko ikastaroa, Lurdes Etxeberriaren eskutik. Antolatzailea: Geurea Ikastola.

ERAKUSKETAK

BEASAIN:

Apirilaren 25era bitartean, Marce Tenaren pintura erakusketa, Aterpe Tabernan.

ORDIZIA:

Apirilaren 25era arte, Pierre Gauthier-Dubedaten erakusketa, Barrenan.

MENDI IRTEERAK

Beasaingo mendizaleak:

Apirilak 13, Uharte Arakil - Irurtzun.

Apirilak 20, Beasain-Baliarrain-Ikaztegieta.

Ordiziako mendizaleak:

Apirilak 13, Lakuntza - San Migel - Agiri - Madoz.

Apirilak 20, Haurren Ibilaldi neurtua Ordizian.

'Ahoz aho, belanez belan' Beasainen

● Larunbata, 12:

9:00etan: Josetxo Zufiaurerekin Zerain ezagutzeko irteera, Barrendain plaza-tik abiatuta.

● Igandea, 13:

12:00etan: Dantzari txikien bilkura eta kalejira. **17:00etan:** Dantzari txikien dantzaldia, Loinazko San Martin plazan.

● Astelehena, 14:

17:00etan: Patxi Zubizarretaren 'Kontu zaharren aurkezpena', Udaletxeko Batzar Aretoa.

● Asteartea, 15:

20:00etan: Inurragi anaien diapositiba-emanaldia eta hitzaldia, Usurbe Antzokian.

● Asteazkena, 16:

17:00etan: Itziar Zubizarretaren 'Itsasoko ipuinak', Udaletxeko Batzar Aretoa.

● Osteguna, 17:

18:00etan: 'Lehenengo eta oraingo dibertsioak' ma-

haingurua, Udaletxeko Batzar Aretoa. Mahaiki-deak: Joxe Felipe Auzmendi, Loinatz Argiñano, Jose Inazio Lasa, Mari Karmen Lasa eta Maritxu Altube.

● Ostirala, 18:

17:30etan: Erraldoi eta kilikien irteera. **18:00etan:** Eskulanen tailerrak, Loinazko San Martin plazan.

20:00etan: Joseba Ugalderen 'Akonkagua, Andeen zaintzailea' diapositiba-emanaldia, Aizkorri Mendizale Elkartean.

● Larunbata, 19:

18:00etan: Euskarazko bideoen proiektzioa eta Bibliotekan dauden euskarazko bideoen zerrendaren aurkezpena, La Salle-San Jose ikastetxeko Zinema-aretoa.

● Igandea, 20:

19:30etan: 'Oskorri and the pub ibiltaria' kantaldia, Loinazko San Martin plazan.

DEBALDEKO IRAGARKIAK

Etxebizitzak:

□ Baserri bat alokatuko genduke, ardiak jartzeko. 887077.

□ 75 m²-ko lokal komertziala salgai edo errentan Beasaingo Oriamendi kalean. 88 00 65.

□ Ganbara edo buhardilla salgai Ordiziako Maribara-tza kalean. Erreformatua eta amueblatua. Prezio interesgarria. 160930 (24 ordu, Elena-Juan Karlos).

□ Pisu ederra alokatzen da Legorretan. Dei ezazue telefono honetara: 80 60 38.

□ 120 m²-ko garajea alokatzen da, almatzen bezala edo garaje bezala erabil daiteke. 80 60 38.

Salerosketak:

□ Bigaia saltzen da Zaldibian. Lehenengoa umekoa eta 8 hilabetez ernai dagoe-na. 16 14 16.

□ Solariuma salgai, berria dago. 88 26 31. Arratsaldean deitu, 2.30etatik 7.30etara.

□ Mahaia, 6 eserleku, 2 altzari eta lanpara salgai. Antigualekoak eta egoera onean. 88 48 22.


□ Pastor Aleman zakurkumeak salgai. Deitu 886906ra, gauez.

□ Emaztegaiaren soinekoa salgai (neurria: 38). Gaueko 9.00etatik aurrera deitu, 88 82 92 telefonora.

□ Bi bigai limusin 13 eta 9 hilabetez saltzen dira bere karta genealogikoarekin. 80 04 90.

Bestelakoak:

□ Pyrenaica aldizkariaren zenbaki hauek lortu nahi nituzke: 1974ko 1 zenbakia; 1975eko 4 zenbakia; 1977ko 108 zenbakia; 1979ko 114 zenbakia; 1981eko 122-123-124-125 zenbakiak; eta 1988ko 150 zenbakia. Saldu nahi badiguzue, deitu iluntzean 889053 (Andoni). Beste zenbaki hauek saltzeko edo aurrekoen ordezkariak: 1975eko 2-3 zenbakiak; eta 135-136-137-39-140-142-143-145-170-171-172-178-179-180-181.



GOARDIAKO FARMAZIAK

12-13: Urbizu (Nagusia, 8-Beasain).
Astegunetan: Arriola (Plaza Nagusia - Ordizia).

19-20: Atorrasagasti (Gipuzkoa, 15- Ordizia).



Andoni Sarriegi Eskisabel
(Beasain)

Otsailean eta martxoan Alkartasuna Lizeoak egindako propaganda ugarian, behin eta berriz irakurri ahal izan dugu “*begirunean, tolerantzian eta elkarrizketan oinarritutako hezkuntza*” eskaintzen duela. Kasu honetan, *esana* eta *izana* inondik inora ere bat ez datoze-la esan beharrean gaude denon aurrean argi eta garbi.

1993ko maiatzeko bozketaren emaitzek eskubidez eta legez eskatzen zutena bete gabe, irakasle eta guraso manipulatzailerek, talde politiko jakin batzuek lagunduta, guztion proiektua zena eta guztion jabetzakoa zena, interes jakinak bitarteko, Administrazioaren eta hark baimentzen dituen proiektu eta jabetzaperasatatzeko urratsa eman zuten. Hartan ez zen izan inolako *begirune, tolerantzia eta are gutxiago elkarrizketarik* izan.

Justizia egin zedin hiru urte luzetan zehar ahalegin du ondoren eta jaun-andre horien aldetik, beren asmoekin bat ez gentozenontzako geroz eta *begirune, tolerantzia, elkarrizketa eta errespeto* gutxiago zegoela ikusita, Ikastola-proiektua salbatzeko eta Beasainen ere betiko Ikastola izateko (euskalduna, gurasoek kudeatua eta gizarte-ekimenekoa, ez administrazioarena), bereiztea beste erremediorik ez genuen ikusi eta hala egin genuen 1996ko irailean.

Geroztik, geure proiektua aurrera eramateko eta aldi berean hain bortizki berena inposatu nahi izan zigutenek ere berena gauzatu eta bakoitzak bere bidea

Alkartasuna Lizeokoak: lapurrak

egin zezan, hainbat bilera, proposamen eta gainerako egin dira Hezkuntza Saila bera ere tartean dela. Harreman horietan guztietan, beti, proposamenak eta borondateak guk aurkeztu izan ditugu (Hezkuntza Saila da horren lekuko eta besterik esan nahi duenak aurkez ditzala bereak, oraindik ikusi gabe gaude eta). Beti, gerotik gerora eta luzapenetan ibiltzea baino ez zaigu eskaini Lizeoko Errektoretza-batzordearen aldetik. Inoiz ez du erantzun zehatz bat idatziz eman.

Abenduaren amaieran, 500 bat bazkidek sinatuta, Alkartasuna Lizeoaren baliotik bereizi gineno dago-kigun zatia Beasaingo Ikastolara pasatzea eskatuz (eta ez beren altxortegira), eskaera ere aurkeztua izan zen. Geroztik, negoziazioa amaitzeko idatzizko proposamen zehatzak egin dira. Badaramatzagu bizpahiru hilabete, batzuetan gogoeta egin behar dutela, besteetan ez direla bildu, hurrengoan ez dutela erantzun nahi eta gisako ahozko nola-halako erantzunak jasotzen. Azken egunotan gainera, geure ekarpen kapitalizatuak han ditugunotako askok, bazkideztatik kanpora inolako kalteordainik gabe uzteko iragarpenak jaso ditugu, horrela, guk garai batean jarritakoaren eta bere etekinen fruituak, Administrazioak eta ezer jarri ez zuten

askok probetxatzeko asmoz. Hori da Lizeoko batzordeak erakutsi digun *begirunea, tolerantzia eta elkarrizketa-giroa*.

Horren aurrean, Goierrri guztiak eta Euskal Herriak jakin dezan ozenki aldarrikatu nahi dut, Alkartasuna Lizeoak ez duela inolako *begirune, tolerantzia eta elkarrizketarik* nahi bertako buruzagitzak ezarria duen bidea jarraitu nahi ez dutenekin eta bere asmo makurrak gauzatzen lagunduko ez diotenekin. Are gehiago, *beren puskak osorik nahi dituzte eta besteenak ere bai* eta horri *lapurra* esaten zaio munduko hizkuntza guztietan. Ez dira gauza izan orain arte, denon Ikastola zena Administrazioa pasarazten ahalegintzean ere, legokiekeenarekin bakarrik gelditzeko. Berei legokiekeena eta besteoi dagokiguna (ala guk ez genuen ezer jarri Alkartasuna Lizeoan? Non dira bazkide-eskubideak?) berenganatu nahi dituzte. *Lapurrak halakoak!* Non dituzue zuen *begirunea, tolerantzia eta elkarrizketa-gogoa*?

Hor, zuena ez dena asko da eta hori dena zor diguzue. Jakin beza Goierrri osoak eta Euskal Herriak, *Alkartasuna lizekokoek*, berek hala dioten arren, bertako bazkide garen 500 laguni dagokigun zatirik ez digutela eman nahi eta hori horrela izanda, alfer-alferriakoa dutela Ikastetxean *begirunea, tolerantzia eta elkarrizketa* praktikatzen ditudela predikatzea, gero ekintzetan *lapurren jokabidea* praktikatzen baldin badute.

ERREZETA



Inaxi Aranburu
Aldasoro jatetxea
Ordizia

LEGATZA SALTSA BERDEAN

Osagaiak (4 pertsonentzat):
8 goilaradada oliba-olioa, 6 baratxuri ale, pipermin gorri txiki bat, 4 tako legatz (250-300 gramokoak), 300 gramo almeja, gatza, irina, perrexila, ardo txuria, pote txiki bat ilar eta esparrago muturrak.

Olioa lurrezko kazola batean jarri. Baratxuriak eta pipermina txikitu eta gorritzen jarri. Legatz takoak zatitu, gatza bota eta irinetan pasatu bi aldeetatik. Baratxuriak gorritzean legatza jarri kazolan eta berau aldi batez mugitu. Legatzari buelta eman. Almejak garbitu eta kazuelara bota. Ondoren ardo txuria, salda eta perrexila gaineratu. Eginda dagoenean (18-20 minutu), ilarak eta esparragoak gehitu.



Txaro Fernandez
Lili loradenda

Gure landareei urte osoan zehar kasu egin behar bazaie ere, urte sasoi honetan arreta berezia eskaini behar zaie, udaberria beraien ugalketarako momentu egokia baita.

Ongarria bota eta beraien hazi edo aldasketatik fruitu berriak sortzea gomendatzen dizuet.

Landare berriak lortzeko, geranio edo hiedrak esaterako, nahikoa da "ama" landarea ebakitzea, 10-15 zentimetroko pusketan. Berau lurrean aldatu sustraitzeko hormonekin bustita. Dena den, ilargiaren aldiak kontuan izan behar ditugu landare berriak lortzeko.

Landareak lore asko eman ahal izateko, landa-

AHOLKUA

Udaberria eta landareak


tzerakoan ilargiaren aldia ilgora izan behar da. Hosto ugari izan ditzan, berri, ilargi berritik ilbehera birtartean.

Gaitzak

Gaitz eta izurriteak landare baldintza kaxkar edo desegokian egoteagatik agertzen dira normalean. Gaitza azaldu bezain laster jarri behar zaie tratamendua: erasotako zatia ebaki eta ere, fungizidak edo intsektizidak bota... Dena den, garrantzitsuena gaitza itsastea eragin duen oinarritzko baldintza desegokia zuzentzea da.

Gaitzik arruntenetariko bat, usteldurarena da. Gehiegizko hezetasunaren ondorio izan ohi da. Sustriak lurretik irteten den zurtoin-unea, zurtoina bera edo hostoak ustel daitezke onddo ugariren eraginez. Zurtoin urtsua duten landareak errazago erasotzen dituzte.

Gaitzari aurre egiteko egin beharrekoa: landarea tenperatura hotzetan ez eduki; lurra ontzitik atera eta lehortzen utzi; urriago ureztatu edo ihintzatu; gelako aireztapena hobetu; eta benomiloz tratatu.



Ilargiaren aldiak kontuan izan behar dira landare berriak lortzeko garaian.



- ⊗ zerbikaletako arazoak dituzula
- ⊗ gerri alde hori pakean uzten ez dizula
- ⊙ orain duzu profesionalen eskuetan jartzeko eta arazo horiei aurre egiteko aukera
- ⊗ gustoko kirola egiten tiroia, uzkurdura, zuntz hausturaren bat... izan duzula
- ⊙ arazoa okertu baino lehen tratamendua jarriko dizugu
- ⊗ kotxe edo lan istripua izan eta errehabilitazioaren beharra baduzu
- ⊙ aseguru konpainiekin ere lan egiten dugu
- ⊙ tratamenduak etxez etxe
- ⊙ elektroterapia, ultra-soinu, esku-terapien bidezko tratamenduak

Iragarki hau erakutsiz gero %10eko beherapena egingo dizugu

ZAINDU

Fisioterapia Gabinetea

Domingo Unanue Plaza, 3
ORDIZIA
☎ 16 19 12

ZUHAIZKI

Zurgindegi Mekanikoa



-LEIHOAK, ATEAK
ETA ABAR

-ESKAILERAK
NEURRITARA



Beko kale, z/g.
Tel. 88 71 26
Faxa: 16 10 77
ITSASONDO
(Gipuzkoa)



Aberri egun bezpera Usurben. Goierriko EGI gazte taldeak, Aberri Egunaren bezperako gauean txalapartaz lagunduriko festa txiki bat antolatu zuen Usurbe gainean. Sua eta adarra ere lagun izan zituzten. Garai batean, Euskal Herriko mendietan gau honetan egiten zen ohiturari jarraitzeko asmoarekin antolatu zuten festa.

Gose greban

4 goierritar preso politiko daude gose greban: Josu Aierbe 'Txupi' eta Andoni Urrestarazu ordiziarrak, Jokin Aldanondo beasaindarra eta Juan Mari Olano zaldibitarra. Giza eskubideen errespetua, zigorraren 3/4 bete dituztenen eta gaixotasun larri eta sendaezinak dituztenen askatasuna, euskal presoen Euskal Herriratzea eta izaera politikoa onartzea dute helburutzat.

Ordizian sabotaiak

Martxoaren 30eko gauean sabotai ekintzak izan ziren Ordizian. Udaletxea, Batzokia, Grupo Vitalicio aseguru-etxea eta Kutxaren bulegoa erasotu zituzten. Josu Zabala heriotza eta presoen egoera salatzeko egin ziren sabotaiak, 'Egin' en errebindikatu zuten.

Mikel Otegi

Itsasondoarrak astero Itsasondoko Bake Epaitegian aurkeztu beharko du, Donostiako Entzutegiko Fiskalaren aginduz. Erabakia Euskal Herriatik alde egin ez dezan hartu omen du, eta oraindik, 1995eko abenduaren 10ean bi ertzainen heriotza gertatu baino lehen izandako gertaera epaitzeko omen dago. Ekainaren 10ean hasiko da epaiketa.

Bi langile hilik

Apirilaren 7an Juan Jose Arrieta segurarra eta Florencio Gomez beasaindarra hil ziren lan istripuan. Irurena galdaragintza enpresan gertatu zen ezbeharra. Habe bat erori zitzaion gainera. Langile bat momentuan hil zen, bestea Tolosako Asuncion klinikara oso larri eramane zuten.



Geurea ikastola ikasgela eske

Beasaingo Geure ikastola mobilizazioetan hasi da, Alkartasuna Lizeoak San Martin plazan dituen ikasgelak eskuratzeko asmoz. Joan zen asteburuan hasi zen protestaldia, eta aulkiak eta mahaiak plazara atera zituzten, eta kioskoan, '100 ikasle gela eske' zioen pankarta jarri zuten.

Astelehen goizean, Alkartasunako Lizeoko ikasleei gelaletara sartzen utzi ondoren --Lizeoko zuzendaria, lehendakaria eta gerentea bertan egon ziren--, Geurea ikastolako gurasoak barrura sartu eta bigarren solairuko gelak hartu zituzten. Informazio hau idazterakoan, astearte arratsaldean, gela guztiak hartzeko asmoa azaldu zuten. Hurrengoan izango dugu albiste gehiago.

Geurea ikastolakoek diotenez, Alkartasuna Lizeoari ikasturte hasieran eskatu zizkien gela horiek, baina eurek behar zituztela erantzun omen zien. *"Enfrentamentura bidera nahi gintuztela eta, Senperen hasi genuen ikasturtea, sesiorik, eta konponbidea nahi genuela jakin araziz"*.

Ines Velasco

Arakil-Uharten martxoaren 31n izan zen tren istripuan Ines Velasco beasaindarra hil zen. 38 zituen Inesek eta Beasaingo Agnes jantziden-dan egiten zuen lan. Bere semea, Augusto, zauritua gertatu zen istripu berean. Apirilaren 2an egin zitzaion hileta elizkizuna eta jende ugari bertaratu zen.

Pryca

Maiatza erdialdera irekiko omen ditu atea Olaberriako Pryca hipermerkatuak. Lanak atzeratu egin dira, kamioilarien eta eraikuntza-ko langileen grebengatik.

Iñigo Oiarbide

Beasaindarra Gipuzkoako Aurreku Txapelduna dugu, 7 eta 11 urte bitarteko gaztetxoan mailan.



☎ 88 55 00 ORDIZIA

LOINATZ

Taberna
Jatetxea
Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

Nagusia, 27 ☎ 882007 BEASAIN



IBAI-ONDO

ZURGINTZA
ALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK



Antzizar Auzoa, z/g
☎ 880543 BEASAIN



Idiazabal gazta berria: oso ona

Apirilaren 2an aurtengo Idiazabal Gaztaren denboraldia hasi zen ofizialki. Hilario Arbelaiz Oiarzungo Zuberoa jatetxeko sukaldariak izan zuen ardura hori, berak ebaki zuen gazta. Arbelaizek adierazi zuenez, berarentzat ohore handia izan zen gazta ebakitzea. Era berean, 97ko gazta urte askoan gogoratuko omen dugu. Ekitaldi berean, Enric Canut gaztazale katalana omendu zuten. Eusko Jaurlaritzaren aginduz, Euskal Herriko gazte buruzko lehen eskuliburua kaleratu zuen. Gaztaren bilakaera edo eboluzioa aztertzeko ikerketa egin zuen. Idiazabal jatorri izena berak horrela proposatuta sortu zen. Canutek aitortu zuenez, duela 13-14 urte ikerketa hau Urbain egiten ari zela, artzainak haserre agertu zitzaizkion, katalan bizardun txiki batek nolatan erakutsiko ote zien bada gazta egiten. Dena den, berak egindako ikerketako hainbat gomendio betetzen ari direla aitortu du.

Denboraldi hasiera honetan hainbat sari ere eman ziren. Hala nola, Arantxa Seguroiak kalitateari dagokionez, iaz gaztarik erregularrena egitearen saria jaso zuen. Era industrialean egindako gaztarik erregularrena Luis Vicente Larrarteren Lizun markak jaso zuen. Sari nagusia, Gazte-gaztai kooperatibak ekoizten duen Malatsa izenekoak lortu zuen.

Segurako Aste Santua

Goiturrek (Goierriko Eki-men Turistikoen Zentruak) Segurako Aste Santuko prozesioari buruzko liburuxka aurkeztu zuen martxoaren

25ean. Segura herriari buruzko historia eta prozesio-ko pasoe eta partehartzaileen berri ematen du. Segurako Udalaren eta Laureano Telleria segurarraren laguntzaz argitaratu da.



- ✓ Agroturismo etxea: bi logela bikoitz bainuarekin.
- ✓ Etxeko sukaldaritza: babarrunak, baserriko oilaskoa, arkumea...
- ✓ Eguneroko menua 800 pzta. Karta 2.000 pzta batatz beste



Igartza jauregiaren zatia behera

Beasaingo Igartza jauregiaren hegoaldeko paretako miradoreko zati bat erori zen martxoaren 21ean. Adituen esanetan, erorketa gehiago gerta ez dadin, behar-beharrezkoa da teilatua berehala konpontzen hastea. Hegoaldeko paret hau, aurtengo udako auzolandegiak konpontzeko asmoa zegoen.

Agirre - Munduate - Begue

Beasaingo Agirre jantziden- da (1936an sortua), eta Ordiziako Munduate erlojute- gia (1884an sortua) eta Begué janaridenda (1925ean sortua) saritu eta omendu ditu Gipuzkoako Merkataritza Federazioak. 50 urtean bezeroen zerbitzura dauden 18 denda omentzea izan du helburu.

Elkarteak bertsogintzan

Bertso eskolako neska-mutilak trebatzen joateko antolatu dira aurren ere bertso-afariak Goierriko elkarteetan. Hirugarren urtea da aurtengoa. Bertso saioen berriak, Agenda sailean izango dituzue.

Ezkontzaurreko topaketak

Hilabete gutxi barru ezkontzeko asmoa duten ezkongai bikote guztientzat antolatu dira topaketa hauek, Beasainen, Loinazko San Martin Parrokian. Topaketa hauetan gai hauek landuko dira: maitasuna eta elkarbizitza (apirilaren 14an), sexualitatea (apirilaren 15ean), bikotearen heldutasuna (apirilaren 16an) eta ezkontza eta sakramentua (apirilaren 21ean). Guztiak arratsaldeko 8.30etan hasiko dira.

Argibide gehiagorako 161517 eta 889683 telefonoak daude. Deia egiteko eguerdiko 12.00etatik arratsaldeko 2.00etara.

MANDUBIKO BENTA jatetxea

MANDUBIKO GAIÑEAN
Urolatik Goierriarako bidean

Tfnoa.: 88 26 73

SASIETAKO INGURUGIRO TEKNIKARIA, ENRIKE ENPARANTZA: "Esperientzia piloto gehienak Goierri hasten dira, sentsibilizazioa handia baita"

Sasietako Mankomunitateak albisteak sortzen ditu etengabe. Esperientzia piloto gehienak Goierri hasten dira, sentsibilizazioa handia baita. Maiatza edo ekaina aldera sukaldean erabiltzen dugun olio bilketarekin hasiko dira. Zaborra gehitzen doa, eta zaborrak sortzen duen kaltea eta berau gutxitzeko aholkuak biltzen dituen gida kaleratu berria da. Goierri Lanbide Heziketako eta Beasaingo Txindoki Institutuko ikasleek, plastikoa berziklatzen dute. Goierriko 17 enpresetan, ingurugiroa nola babesten duten aztertzen ari dira. Interneten ere sartu dira. Honenberri duzue hurrengo artikuluan, guztia Enrike Enparantza Sasietako Ingurugiro teknikariak emana.

● Sukaldeko olio bilketa

Maiatza edo ekaina aldean sukaldeko olio bilketa kanpaina egiteko asmoa dauka Sasietak. Ibilgailuen olioak bildu izan da orain arte, baita jatetxeetako sukaldeetan ibiltzen duten olioak ere. Kanpaina berri honekin, etxetara zabaldu nahi da bilketa.

Eusko Jaurlaritzaren Iho-be ingurugiro enpresarekin



Enrike Enparantza, ingurugiro teknikaria.

elkarlanean burutuko da. Goierri hasiko da esperientzia, eta ondo ateraz gero, EAE osora zabaldu.

Austriatik jaso dute ideia eta biodieselak edo gasoleoa egiten dute. "Goierri bilduko den oliorekin, ongaria egingo da. Gainerako probintzietara zabaltzen denean, olio gehiago bilduko denez, biodieselak edo gasoila egingo da. Gasoil honek gutxiago kutsatzen du eta merkeagoa da. Austrian autobusak biodieselarekin ibiltzen dira eta pegatinak jartzen dituzte ibilgailuek horren adierazgarri", dio Enrike Enparantzak.

Kanpaina oraindik zehazteko dute. Merkatal zentru handietan edukinontzi handiak jarriko dituzte. "Seguruenik hitzaldietara etortzen direnei kontenedo-

re txiki bat emango zaie etxean olioak bota eta ondoren kontenedore handiagotara eramateko". Era berean, Enparantzak adierazi digunez, "Oria ibaian kolektorea jartzekotan dira, eta olioak oso kaltegarria da kolektorearentzako".

● Ontzi bilketa

Beasain, Ordizia, Olaberria eta Lazkaon bakarrik egin izan da orain arte ontzien bilketa. Aurten Goierriko beste herrietara ere zabalduko da. Hori bai, berrikuntza bat izango da: edukinontzia papera eta beira biltzeko erabiltzen den itxura berdinekoa izango da, baina laranja kolorekoa. Tetra-brikak, metalezko ontziak eta plastikozko ontziak bota beharko dira.

Ontziak bereiztu eta sailkatzeko instalazioa, Euskal Herriko lehena, Legazpin eraikiko da. Plastikoa mota ezberdinak daudenez, berziklatzera eraman aurretik, ontziak behar bezala sailkatu behar baitira.

● Paper bilketa zuzena

Merkatariei zuzenduriko zerbitzua da hau batez ere. 118 establezimenduk hartzen dute parte bertan, eta

eurei esker, paper bilketak % 116ko igoera izan zuen iazko urtean.

"Hasieran dendariei zuzendua bakarrik zegoen zerbitzua, paperaren edukinontziak estu xamarra baitu ahoa, kartoiak botatzeko. Dendetako kartoiak biltzeko sortu zen. Arrakasta ikusirik, enpresetara eta ikastetxetara zabaldu zen. Urtean behin edo bi aldiz garbiketa handia egin behar izaten dute eta horrelako zerbitzu bat behar izaten dute. Norbaitek zerbitzua jaso nahi badu, Sasietara dei dezala eta egutegia jarriko dugu. Bilketa puntualak izanez gero ere, dei dezala", dio Enparantzak.

Ingurugiro Teknikariak emandako datuen arabera, jendeak paper gehiago berziklatu zuen iaz. Baina zabor gehiago sortu genuenez, berziklapen indizea txikiagoa da.

● Gidaliburua

Goierritarrok berziklapen kontuarekin guztiz sentsibilizatuta gaudela esan izan ohi da beti. Beiraren datuak hor daude esaterako: %65eko kopurua jasotzen da (Alemanian normalean %75ean dabilta). Enparantzak aitortu digunez, Sasietako barruan Goierri Urola

Argazkiak: Iñaki Etxebarria

En la edición de esta publicación colabora:



fundazioa
fundación

Garaia baino gehiago dago sentsibilizatua. Zumarragak ematen omen ditu emaitzarik kaskarrenak.

Dena den, 96an zabor kopurua asko handitu zen: % 6,9 zabor gehiago sortu zen. "94-95ean nahiko egonkorra izan zen, baina 96an izugarri igo zen. Gipuzkoa osoko fenomenoak izan da".

Datuak ikusita 'Hondakinak gutxitzeko gidaliburua' kaleratu du Sasietak. Bi helburu nagusi ditu: batetik azken urte hauetako geldiezinazko zabor-gehikuntzari aurre egitea eta Hiri Hondakin Solidoak gutxitzeko printzipio estrategikoa gauzatzen hasteko lehen ahalegina egitea; eta bestetik, zaborteziaren bizitzari ahal den neurrian eustea, kontutan hartuta Deba Garaiko Hiri Hondakin Soldioak zaborteziaren sartzen hasi direnetik zabor kopuruak izugarri gora egin duela.

Gipuzkoako Foru Aldundiak ikasturte honetan ikastetxeetan aurrera daraman Ingurugiro-heziketa kanpainan gaineratu behar zaio herritarren sentsibilizazio kanpainari honi. Ikastetxeetako kanpainan ere zaborrak gutxitzeari izugarritzeko garrantzia emango baizaio.

● Ikasleak plastikoa berziklatuz

Ikastetxeetan Ingurugiro-heziketa arloa lantzen dute.

Goierrri Lanbide Eskolan eta Beasaingo Txindoki Institutuan, teoriatik praktikara pasatu dira. 'Fundacion Española de Plastico' enpresak Estatu espainiarreko lau eskualdetan burutzen ari den esperientzia pilotuan parte hartzen ari baitira.

Plastikoa berziklatzeko erabiltzen duten makina (eskala txikian) ikastetxeetan dute. Ikasleek plastikozko esne botilak ebakitzen dituzte. Makinan sartu eta plastikoz egindako txanpon bat lortzen dute.

● Enpresak eta ingurugiroa

Ikastetxeetan ez ezik, zenbait enpresetan ere ingurugiro planekin hasiak dira. Eusko Jaurlaritzako Ilobereen laguntzaz, "hondakin solidoen minimizazio plan bat ari gara egiten, ingurugiro ikerketa. Alde batetik, zein prozesu dituzten, zein legislazio bete behar dituzten, zein lehengai erabiltzen duten, materialean balantzea (sartzen dena eta irtezen dena berdinak izan behar dira)... Gauza horiek aztertuta ikusten da zein den ingurugiro aldetiko egoera. Hau ikusirik, proposatuko zaie beraien egoera hobetzeko aukera edo proposamenak", argitu du Enparantzak.

Plan horretan 17 enpresa sartu dira: Besteak beste, Ampo, Estanda, Jose Egueren, Gerra anaiak, Bilore.



Zuhaitz eguna Sasietan

Martxoaren 19an Zuhaitz Eguna ospatu zuen Sasietak. 60 zuhaitz landara landatu zituzten Beasaingo La Salle-San Jose ikastetxeko 50 bat ikaslek. Lan hori egin aurretik, ordea, zaborteziak ikusi eta ezagutzeko aukera izan zuten.

"Enpresa batzuk nahiko egoera onean daude. Sartu diren gehienak, ingurugiro aldetik sentsibilizatuta dauden dira. Caf ez da sartu, berak daukalako bere ingurugiro auditoria. Pertsona bat arduratzen da horretaz", gaineratu du.


● Deba Garaiko zaborra

Diputazioak Gipuzkoan 3 zabortezi izango zirela erabaki zuen. Hori dela eta, Deba Garaiko zaborra hasiak dira jada Sasietara ekartzen. Tolosaldekoak beranduago ekarriko dituzte. "Ikerketa topografiko bat egin zen eta ikusten zen gure erritmoa jarraituz oraindik 20-25 urte gelditzen zirela. Baina orain Deba Garaiko zaborra ekarrita, 13-14 urte gelditzen dira eta Tolosakoak ekartzen hasita-

koan, oraindik gutxiago. 10-15 urte jotzen dira. Hurrengo kontua da, zaborteziak non egin. Agian errauskailuaren edo inzerinadoren aukera hori egongo da ordurako. Hori politikoen arazoa da. Europa Iparraldeko herrialdeetan, ahalik eta gehiena berziklatu eta gainerakoa inzerinatu egiten dute", dio teknikariak.

Diputazioarekin hitzartutako akordioaren ondorioz, zaborteziak sartzeko tunela berria egingo dute. Oraingoan kamioi bakarra sartzen da, zabaldu egingo dute beraz. "Ikusgarria izango da lana. Tunelaren gainetik trenbidea pasatzen da eta tunel berria kanpoan egingo dute, gero trenbidearen azpian txertatzeko". Maizta aldera espero dira lanak hastea.

Loinaz Agirre



X ENKEGI
ETXE-AROZKINTZA

Diseinuak neurritan

Larunbat arratsaldean irekita

Erakusketako eta faxa: 161606 - mugikorra: 908 863591

Senpere Merkatalgunea, 38

**Sukaldeak
Ateak
Zoruak**

BEASAIN

JAUREGI
TOLDOAK s/l

Tfnoak.: 88 02 43 - 88 01 33

BEASAIN

PERMAKULTURA LANTZEN DU PELLO SARRIEGI LAZKAOTARRAK

"Nik hazia bakarrik botatzen dut, gainerako guztia lurra berak egiten du"

Lagun batek japoniar baten apunteak pasatu zizkion. 50 urtean, lur berean, arroza urik gabe produzitzen zuen japoniarrak. Permakultura-ren bidez, hau da, lurra landu gabe, haziak bakarrik botaz, barazkiak produzitzen ditu Pello Sarriegik. Iaz hasi zen permakulturarekin Barrikan (Bizkaia) bizi den lazkaotarrak. Bere baratza-basoan izan ginen, eta ea ikusitakoa kontatzeko gauza garren.

1.500 metro karratuko zelai bat hartu eta barazkien haziak bota zituen iaz Pellok. Itxuraz, gutxiegi bota zituen, ez baitzen ezertxo ere erne. Edo agian, konfidantza gehiegirik ez zuen. Aurten hazi ugari bota du. Esaterako, 80 kilo baba-haundi eta 300 kilo patata. Euriaren zain dago gehiago botatzeko.

Orain artekoa ez da berria. Baina bai honako hau: Pellok lurrik ez duela ikutu ere egiten, ez diola bueltarik ematen, ez dituela sokorrak xehetzen, ez diola ongarririk botatzen, ez duela txandakatzeko sistemarik erabiltzen, ez diola urik botatzen... "Belarra ematen duen lurra ez da nekatzen, beti belarra ematen du. Asuntua da, lur hori bakean uztea. Bakean utziz gero, ez du huts egingo. Baina muturra sartzen hasiz gero, akabo. Gerra egiten baduzu, gerra jasoko duzu. Bakea ereiten baduzu, bakea jasoko duzu. Nire lana da



haziak botatzea, gainontzeko guztia berak egiten du", dio Pellok. Era honetan, haziak bota, eta euriaren laguntzaz hazia lurrazpira sartuko da, zuztarrak sortuz.

Basoaren funtzioa

Basoaren funtzioa betetzen du Pelloren baratzak. Hazitik landarea; uza eman; ihartu eta usteldu; eta berriz landarea sortu. Urtean bi aldiz sartzen da baratzean, udaberrian eta udazkenean; hazia botatzeko eta uza jasotzeko. Lurra bakean uzten du. "Patatak esaterako, atxurrik gabe atera behar dira, lurrari minik ez emateko. Txikiak diren aleak bertan utzi eta handik sortuko dira berriak. Porruak ere ez ditut ateratzen, moztu baizik. Sustraiak utzi eta handik sortuko da berria". Adibide bat: 3 belauldiko baba dauka: zuztarra, lekarekin eta beste bat lorlan.

Dena nahasian dago. Patatak, tipulak, porruak, baratxuriak, letxugak, borrajak, espinakak, arbia, erremolaxa (abere eta gizakientzat), babak... Babarrunak botatzeko asmoa dauka. Zuhaitzekin ere gauza bera egiten ari

da eta datorren urtean frutabolak izango ditu.

Hazirik merkeenak aukeratzen ditu. Edo fruitudendak soberan dituzten erdi usteldutako porruak, etxean jandako tipularen bihotza, norbaitek emandako borraja landarea... Pellok aitortu digunez, aurten 500.000 peze-ta aterako ditu baratzetik.

Uztaren kalitatea oso ona omen da, eta salneurria "Erosikoa". Kalitate maila hori gainera, urtetik urtera hobetzen joango da Pelloren esanetan.

Filosofia aldaketa

Lurra lantzeko modu berri honekin, Pello Sarriegiren izaera ere aldatu egin da. "Betidanik egon naiz kezkatuta, oro har, nola tratatzen dugun bizitza. Zer den bizitza sentitu nahi nuen. Eta bizitza da inorekin ez sartzea. Lurra bakean utzi behar da, onartu den moduan. Hori pertsoneri ere trasladatu diezaiokegu. Nik hazia botatzen dut eta beraiek jakingo dute zertan dauden", dio. Batere presarik gabe, lurra, eguraldia, zorroak, txoriak... dena den bezala onartuz. "De-

nentzat dago lekua. Bakoi-tzak bere funtzioa dauka. Ongarria bera bakarrik sortzen da, belarrak lehorte-zean".

Berezko ordena omen dago lursail honetan. "Satorrak badaude, baina satorrak bere kapan ibiltzen dira. Une batzutan satorrak jo zuen, argi gunea zegoelako, begetaziorik ez zegoelako. Satorrak protesta egiten du, argia sartzen zaiolako. Belar piska bat bota eta bakea. Xixareak, txoriak, intsektuak ere hor dabilta. Sufrimendurik ez da existitzen".

Pelloren esanetan "lur honek sentitu egiten du, beste baratzetako lurrek sensazioak bakarrik dituzte. Orain euria eginez gero, lur hau esponja bezala dago prestatuta, besteetan ladrilua bezala dago, eta gainera azala eramane egingo du. Eguzkia dagoenean ladriluak ezin du sentitu. Lur hau leku bizia da, bestea, kanposantua baino hilagoa".

Lurraren erosioa, gizakia- ren sufrimendua eta ozono geruzaren zuloaren arteko harremana adierazi digu Pellok. "Gauza berbera dira. Ekintza honekin hirurak konponduko ditugu. Hirurak batera konponduko dira, ez banaka".

Jendeak Pello erotuta dagoela uste du. "Baina hitzek ez didate minik egiten, lixiba edo lejia botaz gero, horrek bai". Estatu espainiar mailan ez du inor ezagutzen permakultura lantzen duenik.

I.go Udaberri Gaztea antolatu da Beasainen

Besaingo Udaleko Gazteria eta Kirolak batzordeak, Antzizar Triatloi taldeak, Gazte Asanbladak, Goieniz zineklubak, Gure Eskuetanek, Kimuak-ek eta Txindoki Institutuak antolatuturik, gazteentzat ekintza ugari antolatu da udaberri honetarako. Gazteek gazteentzako prestatutako egitaraua da. "Herriko talde hauek beraien kasa hainbat ekintza antolatu izan dute urtean zehar, baina sakabanaturik, ez ziren erreferentzia puntu izaten. Udazken kulturala erreferentzia da beasaindarrontzat, eta Udaberri Gaztea antolatu da", adierazi zuen Josi Insausti EAKo zinegotziak eta Gazteria-ba-



Eneko Parra (Gure Eskuetan), Josi Insausti (Gazte batzordeko burua) eta Josu Zabaleta (Gazte Asanblada).

tzorde buruak.

Apirilaren 7tik 25era bitartean izango da I. Udaberri gaztea. "Data egokia da apirila. Azterketa garaia bukatuta eta eskualdean

festen hasiera. Aurten ospatzen ari den Loinatz 97arekin hasi eta urtetik urtera sendotzea nahi dugu", argitu zuen.

Era guztietako ekintzak

antolatu dituzte: hitzaldiak, antzerkia, zinea, musika... Musikari dagokionean, bi makrokontzertu antolatu dira. Batetik eskualdeko musika taldeen kontzertua izango da; eta bestetik, Nahi ta nahi ez eta Berri txarrak taldeena. Patata tortila ere egingo dute, sukaldaritzako abileziak erakusteko. Modak ere tarte izango du. Josi Insausti adierazi zuenez, "herri bazkaria izango da Udaberri gaztearen barometroa".

Aurkezpenean Gure Eskuetan eta Gazte Asanbladaren ordezkariak izan ziren. Baikor azaldu ziren eta aurrera begira ere, elkarlanean aukera posible ikusten dute.

● Apirilak 11, ostirala:

✓ 19:30etan: Narruzko zezena antzerki taldearen 'El sol en el hormiguero' lana Usurbe Antzokian. Sarrera: 250 pezeta. Antolatzailea: Gure Eskuetan.

● Apirilak 12, larunbata:

✓ 11:00etan: Patata tortila herrikoia, Udaletxeko Plazapean. Ondoren, tortilaren dastaketa, Udaletxeko plazan.

✓ 17:30etan: Eskualdeko musika taldeen makrokontzertua Udaletxeko plazan. Taldeak: Izurri Berriak, Amen, En coma, Erga Omnes, Absorber eta First Fucking.

● Apirilak 14, astelehena:

✓ 19:30etan: 'Eskubide kolektiboak. Autodeterminazioaren eskubidea' hitzaldia Udaletxeko Batzar Aretoan. Hizlaria: Imanol Zubero (EHU. Soziologoa). Antolatzailea: Gure Eskuetan.

● Apirilak 16, asteazkena:

✓ 19:30etan: 'Drogaren prebentzioari buruzko bideo-hitzaldia Udaletxeko Batzar Aretoan. Hizlaria: Askagintza. Antolatzailea: Gazte Asanblada.

● Apirilak 17, osteguna:

✓ 21:00etan: Rif-raf pelikula Usurbe Antzokian. Sarrera: 450 pezeta. Antolatzailea: Goieniz Zine Kluba.

● Apirilak 18, ostirala:

✓ 20:00etan: Kitarra elektrikoaren erakustaldia, Udaletxeko Batzar Aretoan. Musikaria: Pablo Moreno (Irungo musikari profesionala).

● Apirilak 19, larunbata: euskal jai gaztea

✓ 11:00etan: Zador Gaztañaga, Igor Rezola, Unai Agirre eta Ainhoa Ibañez txalapartariak Zubimuzu plazan.

✓ 11:15etan: Ostadar Dantza Taldea Udaletxeko plazan.

✓ 12:15etan: Trikipoteoa. Trikitilariak: Daniel Oiarbide, Andoni Zubeldia, Izaskun Telleria, Anartz Mujika, Naiara Loiarte eta Eneritz.

✓ 14:00etan: Gazte bazkaria, Udaletxeko plazapean. Txartelak: Loinaz, Basakana, Ñañarri eta Arranon. Prezioa: 850 pezeta.

✓ Bazkalandoan: Bertsolariak: Haritz Zeberio, Igor Egueren eta Aitor Sarriegi.

✓ 17:30etan: Herri kirolak Udaletxeko plazan. Ekintzak: zankudoak, sokatira, koxkol-jokoa, zaku karrera eta txingak.

✓ 19:00etan: Olaberriako Taldearen eskutik, herri kirolen erakustaldia Udaletxeko plazan.

✓ 23:30etan: Berri txarrak eta Nahi ta nahi ez taldeen kontzertua, Bideluze plazan.

● Apirilak 20, igandea:

✓ 10:30etan: Beasaingo IV. Duatloia. Antolatzailea: Antzizar Triatloi taldea.

● Apirilak 25, ostirala:

✓ 19:30etan: Txindoki Institutuko moda desfilea, Antzizar Kiroldegian. Antolatzailea: Txindoki Institutua.

BEASAIN

'Ahoz aho, belaunez belaun' erakusketa



Apirilaren 20ra bitartean, 'Ahoz aho, belaunez belaun' erakusketa izango du-gu Usurbe Antzokipeko Aretoan. Euskara ahoz aho gurasoetatik seme-alabetara iragan dadin, eta belaunez belaunez iraun dezan, herri-tarrak sentsibilizatu edo kontzientziatu nahi ditu erakusketak. Eusko Jaur-laritzako Kultura eta Hezkuntza sailak antolatua da, eta Udal Euskaltegiaren, eta Udaleko Euskara eta Kultur batzordeen laguntza osoa du. Apirilaren 7an inauguratu zen eta Habeko zuzendaria den Jokin Azkue eta Euskara-batzordeko buru eta zinegotzi den Patxi Plazaola izan ziren ekitaldian.

"Gure etxeetan, familiar, euskaraz ikasi eta hitz egin ahal izan dugunok, erraz eta eroso jaso dugu euskara eta ahoz aho eta belaunez belaun jaso ere hutsik egin gabe. Baina, azken urteotan gertaera horri, guri gutxi kosta zaigulako edo, ez diogu behar adina-

ko garrantzirik eman eta horren ondorioz, euskaldunon artean, transmisio edo segida-etenak nabaritu dira guraso eta seme-alaben, senar-emazteen, senideen, lagunen eta gainerako hurbileko giza taldeen artean", adierazi zuen Plazaolak.

Gaur egun, ikastetxeetan, euskaltegietan, administrazioan eta beste leku batzuetan euskara irakasten eta erabiltzen ahalegin ugari egin da zinegotziak adierazi duenez. Baina, "guraso eta seme-alaben artean, lagunartean, auzotarrekin... euskaratik erdarara inolako premiarik gabe jauzi egiteko ohitura txarra sakonki sartu zaigu eta okerre-na zera da, garrantzirik ez diogula eman".

Errazkeriaren izenean, euskararen maila apaldu eta jaitsi egin omen dugu, hobetu eta igo beharrean. "Gizarte-ko esparru desberdinetan egindako aurrerakada nabariak, erroak sendotzea

eskatzen digu eta ez usteltzen uztea. Orain arteko errorik nagusia, ahoz aho eta belaunez belaun izandako hizkuntz segida edo transmisioa izan da. Horregatik, gure belaunaldi honetan, euskaldunok, ahoz aho eta lekuz leku euskara etengabe erabiltzeko apustu berritua egin beharrean gaude eta belaunez belaun iraun duen usuarioa berreskuratu beharra dugu", gaineratu zuen Plazaolak. Ahoz ahokoak huts egiten duenean, gero ahalegin eta diru asko kostatzen da berreskurapena eta askotan, inoiz ez da iristen gainera galdutako maila.

Plazaolaren arabera, ahoz ahoko hizkuntz segida behar dugu belaunaldi berekoak garenon artean. Baina bereziki, ondorengo belaunaldikoekin. Era honetan, beasaindar guztiei, dakiten neurrian, euskara erabil dezaten eskatu die Plazaolak.

Jokin Azkue Habeko zuzendariak aholkatu zuenez, gizarte-ko eremu informaletan euskara sustatu behar da, batez ere aisialdian. Erakusketan eskaintzen den ikusentzunezkoak, guraso erdaldunek euskaraz ikas dezaten bultzatzen ditu.

Erakusketa ikusteko ordutegia: 19etatik 21etara eta igande eta jaiegunetan, baita 12etatik 14etara ere. Erakusketaren inguruan ekintza

ugari antolatu da. Agenda-ko 7. orrian duzue informazio zehatza.

San Martinen garaia ezagutuz

Udalak Kulturkideren laguntzarekin beka bat dotatu du, Loinazko San Martinen garaiko arrastoak jasotzeko asmoz: nolakoa zen garai hartako Beasain; paisaia, urbanismo mailan, artean, eta abar. Beka horretarako proiektuak aurkezterakoan Kulturkidek Beasaingo Udalarekin batera antolatzen dituen ikastaroetan parte hartzen dutenek izango dute lehentasuna, bertako irakasleak izango baitutuzte gidari. Horretarako Kulturkidek bi ikastaro trinko antolatu ditu Beasainen. Apirilaren 11n hasi eta ekainera bitarte burutuko dira ostiral iluntze eta larunbat goizetan. Kultur Batzordean (88 50 51) edo Kulturkiden (16 18 40) duzue informazio gehiago.

Kutxaren kanpaina

Uztailaren 31ra bitartean, kutxazain automatikoak kutxa-txartelen bidez euskaraz erabiltzen dituzten beasaindarren artean, hilero 3 irati-kasete zotz egingo ditu Kutxak. Kanpaina hau, Gipuzkoa/Donostia Kutxak eta Udalak sinatutako euskararen erabilpen hitzarmenaren lehen ondorio da.

L.A.

ANDRA MARI TABERNA

Jaietako kuadrilentzat menu bereziak

- Eguneroko menua
- Asteburuko menu bereziak
- Karta

100 pertsonentzat jantokia

'Zuk prezioa jarri eta guk menua'

ANDRA MARI, 5 ☎ 88 69 13 BEASAIN

BERRIZ ARANBURU

ERROPADENDA

Nagusia, 8

☎ 88 04 53

BEASAIN

ATAUN

Ibilbideak berregiten

Ez da oraingoa Udalaren asmoa herrian zehar ditugun aspaldiko ibilbideak berreskuratzearen inguruan. Ikusi besterik ez dago herria alde batetik bestera zeharkatzen duen herribide zaharra konpontzen nola ari diren. Horrez gain, ordea, beste ibilbide batzuk modu berean txukundu eta seinalizatzeko helburuarekin, Eusko Jaur-laritzako Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Sailetik 750.000 pezetako dirulaguntza lortu du (Goieki, Goierriko garapen agentziaren gestio batzuk tarteko) eta diru horrekin, aurrekontuetan helburu honentzat agertzen den 2.000.000 pezetakoa kopurua osatu ahal izan da. Ekimen hau burutzeko egitasmo edo proiektu bat aurkeztu berria du Joxe Ramon Agirre, "Marronek", eta martxoaren 26ko plenoan baiezkoa jaso zuen.

Labur-labur, hauetxek dira ejekuzio-egitasmo honen gorabehera nagusienak: ibilbide batzuk eta Troskaeta koba garbitu, tajutu eta seinalizatzea. Ibilbide bakoitza gai zehatz baten in-



Iazko sukaldaritza ikastaroko partaideak.

guruan dago antolatua: 1. Trikuharrien edo jentilen ibilbidea (Bernoko galtzada, mendeetan zehar Nafarroa eta Gipuzkoaren arteko harremanetarako erabilia, barneratzen duena). 2. Artzaen mundua (Sastarriko koba barnean delarik, besteak beste). 3. Sara (herribide zaharra hartuz, Joxemiel Barandiaranen jaiotetxea eta bizilekuak ikusteko aukera eskaintzen duena). 4. Troskaetako hartzak (ibilbide honetan Troskaeta koba bisitatzen da eta jendearentzat errezagoa izan dadin bertara sartzea, koba garbitu eta egokituko da).

Ikastaroak ia martxan

Udalak, Kultur-batzordearen bidez, hiru ikastaroetan parte hartzeko deia zabaldu ondoren, honako erantzuna eman dugu herritarrok:

Sukaldaritzan, 9 lagunek eman dute izena eta hauek apirilaren 12an, larunbatean, hasiko dira Joxemiel Barandiaran eskolako sukaldean beren trebezia erakutsi eta lantzen, Rosa Goñi irakasle dutela. Ordutegi hau izango dute: goizeko 10 t'erdietatik eguerdiko 12 t'erdietara.

Margolaritzarako, 8 lagun agertu dira prest eta hauentzat, berriz, asteazke-

nean, apirilaren 9an, hasi zen "kurtsoa", Santi Iruretagoiena margolariaren ardurapean. Ordutegia: arratsaldeko 18:00-20:00 bitartean.

Zeramikako ikastaroa bertan behera geratu da azkenik, jende gutxiegi apuntatu izanagatik.

Azokari baiezkoa

Asteleheneroko azokak froga epea pasa du eta jendea gustora agertu izan denez, aurrera jarraitzea erabaki da.

Heriotza baten berri

Martxoaren erdialdera hil zen Ramon Aldasoro Munduate, Bordagaztelu baserrikoa, 83 urte zituela. Berandu xamar bada ere, bere sendikoekin bat egiten dugu euren atsekabeen.

Jaiotza bat aspaldiko partez

San Jose egunean, goizeko 6etan, Unai Ioldi Dorronso-ro, Karlos Ioldi herritarra- ren semea, jaio zen. Zorionak familiakoei!

Josune Aldabe

Autowag, s.a.



Gasolina eta Diesela

☎ 88 82 54 - 88 82 62 - 888266
N-1 errepidea, 419 Km BEASAIN

PSIKOLOGI KLINIKOA



José Ramon Pato Prieto

Psikologian lizentziatua

Elkargokide zenbakia: E-2644

RPS: 420/95

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

AURRE ZITA

☎ 88 72 21

Oriamendi, 3 - 2. ezk.
BEASAIN



- Esku lanak
- Ikastaroak
- Opariak

☎ 67 39 07

Euskal Herria, 11
IBARRA

☎ 88 40 56

Andra Mari, 5
BEASAIN

ZALDIBIA

'Euskal presoak Euskal Herrira' plataforma

'Euskal presoak Euskal Herrira' plataforma aurkeztu zen martxoaren 20an Kultur Etxean. Herri ekimen honek Emakume taldea, Jarrai, Zaldibiko dantzariak, Elkarri, Senideak, Gestorak, HB udalgintza taldea, Txarangako partaideak eta Zubi Buru elkartearen atxekimendua du. Plataformaren helburua, "euskal preso politiko eta sozialak Euskal Herriratzera".

Plataformako kideek emandako datuen arabera, guztira 2.220 euskal preso daude, hauetatik 1.049 Euskal Herriko kartzeletan. Goierriko 18 preso politikoetatik bat ezik, beste guztiak Euskal Herritik at daude. Urrutiena 1.032 kilometrorra (Almerian) eta gertuena 169 kilometrorra (Logroñon). Bi zaldibitar daude Estatu espainiarreko kartzeletan: Iker Atxotegi Sukia Caceres Iian, Zaldibiatik 750 kilometrorra (15.000 pezetako gastua gasoiletan); eta Juan Mari Olano Madrilgo Soto Realen, 450 kilometrorra (9.000 pezeta gasoiletan).

Gaixotasun sendaezinak pairatzen dituzten presoak 5 dira. Eta kondenaren 3/4 beteak dituzten 106 presok jarraitzen dute kartzelan.

Honen aurrean, "euskal preso politiko eta sozialak Euskal Herriratzeko edo-



'Euskal presoak Euskal Herrira' plataformako kideak aurkezpenean.

zein politika eta ideologia guztien gainera lan egin behar dugun plataforma bat eratu dugu Zaldibian".

Senideak-Gureak elkar- teek eta hainbat sindikatuk akordaturako 7 puntuak plataforma honek bereak egiten ditu. Hala nola:

1.- Euskal preso politiko-koen sakabanatze politika, ezlegezkoa izateaz gain, zigor gehitua suposatzen du presoentzat eta zeharka do- haineko zigorra senitarte guztientzat. Horregatik neurri hori salatu eta bere- hala amaitu dadin exijitzen dugu.

2.- Nahi duten euskal preso guztiak, sozialak eta politikoak, lehenbailehen Euskal Herrira ekarriak izan daitezen.

3.- Euskal preso politi-koek elkarbizitzarako bal- dintza duinak izan ditzaten.

4.- Aurrekoa bermatze-

ko, Euskal Herriko kartzele- tan kokatuak izan daite- zen.

5.- Gizaki orori bezala- xe, dagozkien oinarritzko eskubideen aplikazio inte- grala exijitzen dugu.

6.- Botere publikoek, gi- zatiar eta justiziazko eska-

kizun hauek aurrera ateratze- ko beharrezkoak diren medioak praktikan jarri eta erabaki politikoak har di- tzaten.

7.- Honako akordioak, espainiar eta frantziar go- bernuei igortzea erabaki- tzen dugu, eta Euskal He- rriko instituzioei honako ebazpena berea egin deza- ten gonbidapena luzatzen dugu.

'Euskal presoak Euskal Herrira' plataformak Zaldi- biko herria sentsibilizatzen egingo du lana, "betebe- harrak burutzeko beharrezko- ak ikusten dituen ekimenak burutuko dituelarik, beti ere Plataformako kide guz- tien adostasunean".

Eskola-umeak parkeko landareen zaindari

Lardizabal Herri Eskolako 1. eta 2. OHoko haurrek zain- duko dituzte, hemendik aurrera, eskolatik oso gertu duten herriko Parke Botanikoko landareak. Lehenengo ekintza egina dute: lehendik inbentariatu eta katalogaturik dau- den parkeko arbolei, bere izena ezarri diote ondoan, he- sola baten puntan, euskaraz, latinez eta gazteleraz.

Besteak beste, honako espezie hauek aurki daitezke: haritz ganduduna, gurbitza, urritza, lizarra, zume zuria, intsusa beltza, Kanarietako palmondoa, berberisa, mag- nolia, arrosa arrunta, erramua, urkia, ezpela, zedroa eta gorostia.

Ekintza honekin lortu nahi dena da, parkea txukun edukitzeaz gain, umeei landareak ezagutzeko aukera eman eta natura eta ingurugiroa errespetatzen irakatsi. Ibaiaren kontra dagoelarik, lan gehiago eta egokiago egi- teko egokiera ematen die horrek.

LEIAR
KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA:

Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 88 88 24

BILTEGIA:

Salbatore Industrialdea ☎ 88 60 70

BEASAIN



Nafarroa Etorbidea, 9

☎ 88 94 82

BEASAIN

EROSKI
KAFETEGIA

gosari - merienda
eguneroko menua

☎ 88 27 93

ORDIZIA

ZEGAMA

Gaur apirilak 11, bertso-afaria burutuko da Udal os-tatuan. Bertan 3 bertsolari gazte izango ditugu, hau da, oraindik plazarik plaza ez ibiliagatik bertsotan poliki egiten dutenak. Txartelak Ostaturun daude salgai.

Txirrindu frogak

Bihar apirilak 12, arratsaldeko 4.00etan, Lehenengo Urteko Kadeteen Txirrindulari froga burutuko da herrian.

San Bartolomeak martxan

Azkeneko Jaietako-batzordean aurtan San Bartolomeak ospatzeko honako egun hauek zehaztu ziren: abuztuak 23, 24, 25, 26 eta 31.

Zegamako toponimia mapa

Joan den astean banatu ziren herritarren artean Uda-



laren eskariz egindako 'Zegamako Toponimia mapa', gure arbasoek erabilitako leku izenak, gaur egun asko eta asko galduak, berreskuratu eta betirako jasoak geratu direlarik. Mapa hau Udala eta Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzarekin gauzatu da.

Lerro hauen bidez, leku-izen hauek berreskuratzen laguntza eskaini duten herritarrei bere eskerrona agertu nahi die Udalak.

Kirol albiste laburrak**Martxoko emaitzak:**

- 15 eta 16an urtero bezala, Andorran Nazioarteko Krosa ospatu zen. Ordiziako Txindoki Atletismo taldea ordezkatzuz, bi zegamar izan genituen: Amaia Urbizu eta Xabier Azurmendi. Amaiak 5. amaitu zuen eta Xabik 18., bakoitzak bere kategorian. Andorrara joate hori, Goierri mailan ospatu diren lasterketetan zazpi

onenen artean geratzearen saria izan da.

- Trial Sin-ean berriz, berderatzi lasterketa ospatu ondoren, Ruben Zabaleta dugu Gipuzkoako Eskolarteko Txapelkun berria. Ruben Casanovak 4. postua eskuratu du.

- Txirrindularitzan Oier Arkonadak, Urnietan 2. eta Tolosan 4. geratu zen. Azken herri honetan, Ruben Zabaletak 2. postua eskuratu zuen.

Apirilean:

Gipuzkoako Eskolarteko Sokatira txapelketaren lehen ihardunaldia Zegaman jokatu da, hilaren 12an, arratsaldeko 4.00etan. Beraz, Gipuzkoa osoko eskolen arteko tiraldiak egongo dira neska eta mutil alebilen artean.

Eduarne Albizu

LEGORRETA

Udaleko Kultur-batzordeak landare zaletasuna duten guztientzat lorazaintza ikastaroa antolatu du. Ikastaroaren iraupen osoa 12 ordukoa izango da eta maiatzaren 13, 14, 20 eta 21ean Kultur Etxean gauzatuko da, arratsaldeko 4.00etatik 7.00etara.

Ikastaroaren mamia honako hau izango da: landareen ezagutza; zuhaitza, zuhaiska eta landare arruntak; lurra eta ongarriak; gaixotasun arruntak; inausketak eta kimaketak; landareen ugalketa; eta diseinua: landareen antolaketak.

Ikastaroan partaide bakoitzari idatzizko materiala banatuko zaio. Matrikularen kostua 1.500 pezetakoa izango da eta Udal bulegoetan izena ematerakoan ordainduak izan behar dute. Izena emateko epea apirilaren 30ean amaituko da.

Pelota txapelketa

Apirilaren 5ean eman ziztzaion hasiera Bilkoin Elkartek urtero antolatu ohi duen pelota txapelketari. Bi taldez osatua dago eta ligasak moduan jokatu da. Partiduak larunbatetan jokatu dira arratsaldeko 4.00etatik aurrera.

Lorazaintza ikastaroa**Baldarrak txapelkun**

Herriko futbol txapelketa Baldarrak taldeak irabazi

du, Danetik taldeari finalean 4-3 irabazi ondoren.

Josune Amondarain

Festetako gorabeherak

Hilabete eskas geratzen denean herriko festei hasera emateko, esan beharra dago ekintza gehienak lotuta daudela. Azpimarratzekoa da dena den, festak antolatzeke garaian herritarren partehartze eskasa. Izan ere, Udalak onarpenak jasotzeko epe bat zabaldu bazuen ere, ez zuen onarpen bako bat ere jaso eta festetako bilerara 4 katu azaldu zirela kontutan hartuta, larritzen hasteko moduan gaudela uste dut. Festak antolatzeke erantzunkizuna 4 katuren bizkar uztea ez zait egokia iruditzen, ederrak gaude kanpokoek festak antolatuko dizkigutela uste badugu! Urtetik urtera festetan kanpokoek partehartzea nabarmenki gutxitzen doala ikusirik, inork lan egin ezean ez dakit zer gerta behar ote den, bakoitzak atera ditzala kontuak.

IDIAZABAL

Pilotari buruzko astea

Herri Eskolaren ekimenez apirilaren 14tik 20ra bitarteko astea pilotari eskainiko zaio. Herri Eskolan pilotaren inguruko kontuak landuko dituzte aste horretan eta Kultur Etxean gai horri buruzko erakusketa egongo da jarrita.

Era berean, hilaren 14an Kepa Gonzalezen Euskal Pilota Jokoa izeneko ikusentzutekoa ikusteko aukera izango da Kultur Etxean, iluntzeko 8.00etan.

Zuberoako ikastola

Zuberoako Sohüta herrian egiten ari diren Ikastolari laguntza emateko diru bilketa egiten ari dira herrian. Joseba Iparragirre eta Gemma Burugain herritarrek hartu dute lan hori. Horretarako 4.500 pezetako txartelak dituzte salgai.

Bildutako dirua Eperra ikastolako ikasle eta gurasoei emango diete Ikastola lehenbailehen martxan jarri dezaten. Dagoeneko Udalaren, Kimu elkartearen eta Zirika irratiairen laguntza jaso dute.

'Lera-txakurrak'

Apirilaren 23an, Joseba Iribarren 'Lera-txakurrak' ikusentzutekoa izango da, Kultur Etxean, iluntzeko 8.00etan.

Batzokiaren erasoaren ondorenak

Idiabalgo HBk martxoaren 15ean egin zuen Kultur Etxean, Batzokiari egindako erasoaren ondoren gertatutakoaren balorazioa. Gogor salatu zuen EAJk eta EAko alkateak martxoaren 7an HBko Martin Lizarazu eta Andoni Alberdi zinegotzien aurka "aurrera eramane zuten lintxamendua". Era honetan, "HBko militanteren bati zerbait gertatzen bazaio, ardura osoa alkatearen eta PNVrena izango da", esan zuten. Aldi berean, EAJ eta EA talde politikoek enfrentamendu zibila bultzatu nahi dutela salatu zuten. "Lintxatzea, egurtzea eta tirokatzea nahiago izan dute, horrela PP eta PSOEn txaloak jasoz", adierazi zuten.

Martxoaren 7ko gertaeren ondoren 17 urteko herriar batek eta familia pairatzen ari diren presioa eta irainak ere salatu zituzten, eta "inkontrolatuen bisitak" ere aipatu zituzten.

Prentsaurrekoan Goierriko HBko zinegotzi eta militanteek babesa azaldu nahi izan zuten HBko zinegotziei. Prentsaurrekoaren ondoren, konzentrazioa egin zuten herriko plazan.

Batzokiaren erasoaren ondoren gertatutakoa aztertzeke pleno berezia egin zen martxoaren 18an. Plenoan EAko eta EAJko zinegotziak eta 60 bat herritar bildu ziren. Herri Bata-sunako zinegotziak ez ziren plenera joan eta ohar bat bidali zuten horretarako zitu- tzen arrazoiak argituz. HBk zioen, martxoaren 7an gertatu zenaren ondoren ez zituela egoera horren sako- neko azterketa egiteko bal- dintza egokiak ikusten ple- noan.

Udalbatza hasi aurretik Antton Irizar alkateak gau

hartan gertatutakoaz hitz egin zuen komunikabideen aurrean. Alkateak Batzoki- ko etxeko bizilagun gisa jo- katu zuela esan zuen. Bere esanetan, "jendeak garbi eduki behar du ni Batzoki- ko etxebizitzako lehen pi- suan bizi naizela eta han izandako jokaera etxeko bi- zilagun bezala izan nuela".

Plenoa hasterako komu- nikabideek gela uztea era- baki zuen udalbatzak, "gertakizunak herrira mu- gatu nahi direlako eta he- rriaren izena egunero ko- munikabideetan azaltzea ez delako komenigarria".

Plenoan, EAk eta EAJk kaleratutako oharrean he- mendik aurrera berdin jo- katzeko herritarrei eginda- ko deia berretsi egin zuten.

Xabier Urteaga

ITSASONDO

Kultur astea apirilaren 23tik 26ra

Aurtengo kultur asterako hainbat ekintza antolatu da. Apirilaren 8an hasita esate- rako, euskal dantzen ikasta- roa izango da haurrentzat. Ekainera bitartean iraungo du.

Gainerakoan, eguraldiari buruzko hitzaldia, lera txakurrei buruzko diapositi- bak, kantu afaria, bertsola- riak... izango dira. Honatz egunez-eguneko ekintzak:

Apirilak 23, asteazkena:

20:00etan: 'Eguraldia eta tenporak' gaiari buruzko hitzaldia Pello Zabala Arantzazuko fraile eta egu- raldi gizonaren eskutik, Erretore Etxean.

Apirilak 24, osteguna:

20:00etan: Jose Iribarren eskutik 'Lera-txakurrak' diapositiba emanaldia, Erretore Etxean.



Apirilak 25, ostirala:

21:00etan: Arbel Aitz el- kartean kantu-afaria, Alaitz Katarain abeslariaren kita- rra eta abestiekin alaituz.

Apirilak 26, larunbata:

22:30etan: Bertso jaialdia Errota frontoian. Bertsola- riak: Imanol Lazkano, Xa- bier Amuriza, Andoni Ega- ña, Sebastian Lizaso, Maia- len Lujanbio eta Aitor Sa- rriegi. Gai-jartzailea: Mikel Mendizabal herritarra.

LAZKAO

Kulturaldia 97 apirilaren 16tik 25era



Hastear dago aurten ere, Maizpide euskaltegiak eta Goiherriko Euskal Eskolak elkarrekin urtero antolatzen duten kultur astea. VII. edizioa dugu eta, aurreko urte-etan bezala, ekintzen menua oso zabala da.

Apirilak 16, asteazke-na: Gaur euskara irakasle diren Maizpideko ikasle ohi zenbaiten hitzaldia, Maizpiden, arratseko 9.00etan.

Apirilak 20, igandea: Maizpideko ikasle eta irakasle ohien bazkaria izango da, 14:00etan, tokia zehazteke.

Apirilak 21, astelehe-na: Josu Eizagirreraren 'Uru-mea' ikusentzunezkoa Udaletxeko areto nagusian, 21:00etan.

Apirilak 22, asteartea: Goiz partean Antzarren VII. bertso-paper banaketa, herriko ikastetxeetan.

Apirilak 23, asteazke-na: Eranskailu lehiaketako sari-banaketa Udaletxeko areto nagusian, 17:30etan. Iñaki Irazabalbeitiak 'Era baten bukaerara bidaia' gaiaren inguruan hitz egingo du, Udaletxeko areto nagusian, 19:00etan.

Apirilak 24, osteguna: Gazteen bertso-saioa, Goierriko Bertsolari Eskolakoen eskutik, 15:00etan, San Benito ikastolan.

Apirilak 25, ostirala: Gerriko Ikerlan Sarietako liburuen aurkezpena, Udaletxeko areto nagusian, 20:00etan. Hauek dira libu-

ruak: Joxe Migel Azurmen-diren 'Ataungo euskara', Nekane Urdangarin eta Leire Munduateren 'Karobiak Ataunen' eta Xabier Azur-mendiren 'San Adrian eta inguruen kondaira'.

San Benitoko ikasleak Mauleko ikastolarekin

Euskal Herriko hainbat puntutan Mauleko ikastola-ren aldeko diru-laguntza kanpaina hasi da jada, baita Lazkaoko ikastolara iritsi ere. Iparraldean euskararen egoera, gazteen artean nagusiki, larria da; honela, gure hizkuntzaren normal-kuntzarako eraiki nahi den Sohütako ikastolak joka dezakeen paperaz jabeturik, BBB-UBiko ikasleek 18.000 pezeta baino gehiago bildu dituzte. Diru honekin Mauleko ikastolari laguntza emateko salgai jarri diren 4.500 pezetako bono-txartelak erosi dituzte.

Zeuk ere Sohütan ikastola eraikitzen lagundu nahi baduzu, oraintxe duzu aukera aproposa. Horretarako 4.500 pezeta eman beharko dituzu dirutan edo txekez

(azken hau Habiren izene-an); gainerakoan, diru hori jiro-postalez Habiaren zu-zenbidera bidal dezakezu, zeure datuak ipini ondoren. Hauxe da posta-igorpenez bidali beharreko helbidea: Eperra ikastola / Habia el-karte. Evadès de France karrika 12/64130 Maule (Zuberoa).

Igeriketa teraupetikoa

Eguna zehazteke badago ere, hil honetan hasiko da igeriketa teraupetikoa ize-neko ikastaroa kiroldegian. Ikastaroa lepoko nahiz gerriko mina, bizkarrezurreko arazoak eta lanean edo bi-zitza normalean gorputz-postura desegokian jarduten dutenentzat dago zuzendua bereziki.

Astean 3 ordu izango dira, IVEFen lizentziatutako irakasleen eskutik. Bertan parte hartzen duenak mediku-jarraipen estua izango du. Izen ematea eta argibide gehiago Joxe Miel Baran-diaran kiroldegian.

*Koldo Urrestarazu
Urko Irastorza*

IKASTEK AKADEMIA

Kalitatea eta profesionaltasuna

- ✓ Eskola laguntza
- ✓ Unibertsitarioak
- ✓ Oposaketak
- ✓ Kurtsoak

Maila eta arlo guztiak
Zentru homologatua

☎ 16 01 20 Joan Iturralde, 5 BEASAIN

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoak: 88 57 50 - 88 57 54

Nafarroa Etorbidea, 25 - 2.

BEASAIN

Alpe

MASTER

- ✓ Sukaldeko altzariak
- ✓ Elektragaiak

Mariaratz, 4

☎ 88 86 84

BEASAIN



RENAULT

AGENTZIA

**LAZKAO
GARAJEA**

Senpere Industrialdea

☎ 88 24 42 - 88 89 01

Faxa: 88 89 01

LAZKAO

SEGURA

Ur eta hazi bedeinkazioa Santa Engrazin



Xesto eta poltsetan haziak dituztela Segurako eta inguruko herrietako emakumeak iaz Santa Engraziko ermita atarian.

Duela 20ren bat urte, egun honetan, apaiza eta beste 9 lagun kontatu zituztenak bada. Orduan ere, norbait arduratzen zen ohitura mantentzeaz. 1986an, erritosa santaren aste bereko jaira pasatzeak eta azken urteetan prentsak eman izan dion tratamenduak, ekitaldi oso jendetsua bihurtu du egun hau.

Santaren eguna apirilaren 16an bada ere, jaien, apirilaren 20an, eguerdiko 12:30etan ospatuko da urteroko ur eta hazi bedeinkatzearen antzinako ohitura, garai batean Gaztela eta Europa lotzen zituen bidean dagoen Santa Engrazi ermitan. Ospakizuna hasi aurretik, ohiturak aginduta, auzoko baserrietakoek, Santa Engrazi baserriko edo garai bateko sakristau-etxeke sukaldeko mahaian, meza diruak utziko dituzte.

Mezaren aurretik, ermitaren kanpoaldean, Segurako eta inguruko herrietako baserriarren eta kaletarren aurrean, egun honi dagokion irakurgaiaren ondoren, ura eta haziak erramu hosto batez bedeinkatuko ditu Josu Elorza bikarioak, soro-bartzetan ereinez edota ganaduei emanez, fruiturik hoberenak eman ditzaten. Jende-

ak, poltsa edo xestoetan ekarriko dituen haziak, batipat indibaba eta artoa, horretarako egokituko den mahaian jarri ahal izango dira aurtien. Ura, berriz, botila edo potetxoetan, bertan egongo diren barriñoietatik hartu ahal izango du jendeak. Herriko hainbatek, beren aurrekoei entzuna dietenez, garai batean, ez omen zuen inortxok ere ereitten hazien bedeinkazio egun hau pasatu arte.

Erritosa bukatzean, auzoan hildakoen aldeko meza izango da ermita barruan eta ondoren, beraren zaindariak diren Santa Engrazi baserriko Ormazabalдарrek, Udalaren laguntzaz, hamaketakoa eskainiko dute.

Odol-ematea

Zapatuan, apirilaren 12an, 17:00etatik aurrera egingo da Osasun Etxean, aurtengo 1go odol-ematea. Ondoren, herriko zenbait denda eta tabernaren laguntzaz, mokadutxoa izango da. Arduradunek, odol-emaleei eta batez ere, jende gazteari dei berezia egin nahi diete odola ematera ager daitezen. Hurrengo emanaldiak, abuztuan eta abenduan izango dira.

Bertsok Elorri

Goierrri, Tolosaldea eta Urretxu-Zumarragako Bertso Eskolek antolatuta, III. Afalosteko bertso saioen barne, zapatuan, apirilaren 12an, 20:30etan hasiko den afariaren ondoren, Joxe Munduate, Mikel Aranburu eta Bixente Gorostidi arituko dira bertsotan Elorri Elkartean. Bertako bazkide diren Aitzol Telleria, Felix Goiburu eta Rafa Berasateri mendigoizaleei oroigarri baina emango zaie afarian.

Bola-jokoa

Goierrriko bola txapelketa apirilaren 5ean amaitu zen Mutiloan izandako saioarekin. Sailkapen orokorrean, Xepiño Agirre 2. geratu zen, 394 brillarekin, Gilberto Juaristi irabazlearengandik 12ra. Gipuzkoako erregulartasun txapelketan, berriz, martxoaren 16an, Olaberrian izandako 9. jardunaldian Jon Agirrek 1go postua lortu zuen. Sailkapen orokorrean, 12 jardunaldiren ondoren, Xepiño Agirre doa 1go, 527 brillarekin, Martxeliño Agirre 3. 522rekin eta Antonio Agirre 7. 507rekin.

Kirol Eskolarra

9 probaren ondoren, Gipuzkoa mailako trialsinean Laiotz Herri Eskolako Asier Izuzkiza mutiloarrak brontzezko domina lortu du. Mendiko taldean dabilzan Laiotz Herri Eskolako neska-mutikoak, apirilaren 13an izango dute mendi irteera. 8:30etan plazatik abiatuta, Lizarrusti, Lareo eta Eneriora joango dira.

XXX. Herriarteko pelota

Apirilaren 9an zozketa egin da, 20an hasiko dute 27 herriko, Gipuzkoako *interpuebloseko* pelota txapelketa.

Kanporaketak, astero jokatuko dira eta 3 mailetarako ondorengo pelotariak daude: **Kadeteak (16 urte arte):** Uritz Gonzalez, Inge Olano, Ekhi Albizu eta Ibai Telleria. **Jubenilak (18 urte arte):** Iban Berasategi eta Eritz Intxausti. **Afizionatuak:** Iñaki Artola, Egoitz Berasategi, Ibon Etxeberria, Jon Ander Hombre eta Xabier Etxeberria.

Futbola

Asteburuan etxean. Zapatuan: **Kadeteak:** Aizkorri - Eibar (12:00); **Erregionallak:** Segura - Intxaurren (16:00); **Jubenilak:** Segura - Orioko (18:30).

Labur labur

● Ostegun santu egunean, ume bati urrezko medailadun brotxea galdu zitzaion. Brotxean "Adur" izena azaltzen da eta medailatxoan "A" bat. Aurkitu duenak, dei dezala 801041 telefonora.

● Martxoaren 30ean, goizaldera, ezezagun batzuk eliza ondoan zeuden ETBko ibilgailu eta ekipoak molotov koktelez erasotzen saiatu ziren.

● Apirilaren 6an, Segurako Andre Mari Jasokundearen elizan, Haritz Jauregi, Julen Orrigain, Irene Ormazabal eta Ioritz Garro bataiatu zituzten.

● Apirilaren 13an, 12:45etan, "Atsedan" jubilatuen elkarteko biltzar nagusia egingo da. Ondoren, mokadutxoa izango dute.

● Udalak herriko kaleetan, brontze itxurako burnizko erroto berriak jartzea erabaki du kale izenekin.

Joseba Telleria

ORDIZIA

Udalak azoka berezien aldeko apustua



Aurreko urteotan izandako arrakasta ikusi eta gero, azoka bereziak antolatzen jarraitzeko apustua egin du aurtien ere Udalak. Ikusi besterik ez dago apirilaren 2an, Idiazabal Gazta berriaren aurkezpenean, herrian bildu zen jendetza. Eta asteazkeneko egun hori alde batera utzi gabe, larunbatetan ere urtean zehar hainbat azoka berezi ipintzekotan dira. Honela ekainaren 7an "mugazgandiko azoka" ospatuko da Ordizian. Ezpeletarekin eta Altsasarekin batera elkartua dago Ordizia mota honetako feriak egiteko eta iazko arrakasta ikusita errepikatu egingo dute. Gainera lapurtarrek feria egun guztian zehar luza dadin eskakizuna ere eginga dute, goiza bakarrik motza

geratzen denaren antza.

Baina aurretik, maiatzaren 2 eta 3an, Ertaroko II feria ere ospatuko da. Jesus Mari Lariz zinegotziak esanda Udalak apustu gogorra egin nahi du baita azoka honekin ere eta iragarri duenez ertaroko afari bat antolatzekotan dira. Hori bai herritarrei deia zabalduko zaie garai hartako erro-pak hartu eta kalera ateratzeko.

Aparkalekuak

Ordiziak betidanik izan du aparkatzeko leku arazoa. Orain berau areagotu egin da, batez ere asteburuan herrian elkartzen diren kotxe kopuru handia dela eta. Jendeak geroz eta aparkamendu ezlegezkoagoak egiten ditu. Materia honetan orainarte Udalak eskuduntzarik ez bazuen ere, hemendik aurrera udaltzainen eskuetan egongo da asteburuetan aparkamenduak kontrolatzearen arazo hau.

Natur eskola

1989an indar handiz sortu bazen ere, nahiko une larriak bizitzen ari da Oianguren Natura Eskola. Urtean 4 milioiko galera suposatzen dio Udalari eskolaren gestioak eta beraz, eskolaren nondik norakoak daramatzan Denasport enpresari kontratua ez luzatzea erabaki da. Urteotan inguruan sortu diren mota honetako eskolak direla arrazoi, hasieran espero zen jende kopururik ez omen da bertatik pasatu.

Itxaropena txapeldun

Elkartearteko XVIII. Mus Txapelketan Fernando Ayerra eta Jose Mari Garmendia "Majori" izan ziren irabazleak. Hauek Itxaropena Elkartea ordezkatzan zuten eta finalean Larrun-Arriko Paulino Gallego eta Juantxo Latasak osatutako bikotea izan zuten aurrez-aurre. Fernando eta Jose Marik ez zieten inongo aukerarik eman, 3 eta 0. Puntuaketak orokorki hartuta Jai Alai izan zen garailea 51 puntuarekin.

Argazki ikastaroa

Argazki ikastaro dinamikoa antolatu dute, Baga Biga eta Foto Ibiltarik. Apirilaren 15a eta maiatzaren 31 bitartean iraungo du, asteazkenetan larunbatetan. Asteazkenetan teoria emango da eta larunbatetan Goierriko herrietan irteera praktikoak egingo dira. Izen emateko kuota 3.000 pezetakoa da eta epea ostegunean itxi bazen ere, lekua izan ezker behintzat larunbatean, hilak 12, ere onartuko dira izen emateak.

Labur Labur

● KORRIKA: martxoaren 17an pasa zen Korrika gure herriak eta eguraldia lagun jendearen erantzuna ezin hobea izan zen, kaleak erabat bete.

● SARIA: Itsuen loteria saltzen aritzen den Hipolito Diez ordiziarrek 152 milioi banatu zituen aurreko hilaren amaieran. Azken bi urteotan zortez dabilta saltzaileok, aurretik Josefa Rodriguez eta Agustin Zurutzak ere sari bikainak banatu bait zituzten

Aitor Calvillo

OSKARBI
OINETAKOAK

Mota guztietako eta adin guztientzako oinetakoak.

Kickers

K. Nagusia, 25
☎ 88 19 44 ORDIZIA

LUBERRI
Loradenda

- ✓ Andregai lora sortak
- ✓ Kotxe eta eliz apainketak
- ✓ Ezkontza opariak

J.M. Barandiaran, 3 ☎ 16 04 79 ORDIZIA

JOSUNE & KLAUDE
ileapaindegia & edergintza

Edergintza eta ileapaindegia
tratamendu guztiak

Iturtxo, 5 ☎ 16 22 56 ORDIZIA

Zure edertasuna zaintzen dugu!

- ✓ Solariuma
- ✓ Depilazioa
- ✓ Garbiketak
- ✓ Makilaia

Aloska

EDERGINTZA - USAINDEGIA

Domingo Unanue Plaza, 2
☎ 88 24 10 ORDIZIA

OLABERRIA

Kasko auzoko berrikuntzak aurkeztu dira



Dagoeneko Kasko auzoan etxe gehiago egitearen proiektua publiko egin da. Martxoaren 25ean Bilkura Berezia egin zen Udaletxean, aldeko 6 botorekin eta aurkako 2 botorekin onartu zen publiko egitea 'Olaberriko Kaskoari dagokion hirigintza-egitامتuketaren birrazterpena' deritzan dokumentua. Bilkuran Alberto Zabala udal arkitektoa luze eta zabal aritu zen hitz egiten dokumentuari buruz. Honen ustez etxebizitzak egiteko lursailak behar dira auzoan eta honela hiru lursail aukeratu dira etxebizitzak egiteko: lehena Miraba-

lles baserri parean dagoen lursaila, bertan 10 etxe egin daitezke; bigarrena Arrieta jatetxe pareko lursaila, bertan 6 etxebizitza eta aparkaleku bat egiteko aukera dago; eta azkenik hilerri ondoan lursaila, hemen ere 6 etxebizitza egin daitezkeelarik.

Bilkuran argi geratu zen etxebizitza hauek ez direla merkeak izango, izan ere bizitza bakarreko edo biko etxebizitzak izango dira. Gaur egun Kasko auzoan 25 etxebizitza daude eta 21 eraikitzen ari dira (8 Bikarrio-Etxeko lursaila eta 13 Belakasoron).

Dokumentuan beste proiektu batzuk ere agertzen dira: Zeba taberna aurrean biribilgu edo rotonda bat jartzearen beharra, honela Lazkaora joateko bidegurutzearen arriskua gutxituko bailuke. Era berean, Udaletxe ondoko plaza handitu nahi da, eta Olanan baserria eta Zezilio-enea etxea birrindu.

Hala ere hau oraindik proiektu bat da eta dokumentua ikusi, aztertu edo aldatu nahi baldin baduzue, 30 egunetako epea duzue.

Udaberriko ikastaroak

Martxoko hilabete amaieratik udaberrian gaudela zue-tako askok jakingo duzue, ba hori aprobetxatuz Udalak bi ikastaro ezberdin jarri ditu martxan: pintura ikastaroa eta eskulan ikastaroa. Lehen apirilaren 7an hasi zen eta astelehenero egingo da bi ordutegi ezberdinekin; 16:00etatik 18:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Eskulan ikastaroa apirilaren 10ean hasi zen eta ostegune-

ro egingo da arratsaldeko 17:30etatik 20:00etara.

Pelota eta mus txapelketak

Arkupe Elkartek aurtengorako ere antolatu ditu pelota eta mus txapelketak. Pelota partiduak palaz jokatu dira eta bikote hauek izango dira lehian: Berasa-Arrieta; J.Albisu-Salaberria; A.Albisu-Zudaire; Aierdi-Sarasola; Aranburu-Garrido; Andonegi-Insausti; Arregi-Etxeberria; Martinez-Alonso; Barandiaran-Auzmendi; eta Tobar-Giralt. Finala San Juan festetan jokatu da.

1986an jokatu zen lehenengo mus txapelketa Arkupe Elkartearen eta aurreko 6 bikotek hartuko dute parte; Shanti Narro eta Patxi Apolaza; Joakin Agirre eta Alejandro Alvarez; Mela eta Juanma; Jesus Mari Castro eta Joxe Mari Gurrutxaga; Javi Goikoetxea eta Gregorio Mujika, eta azkenik, Iturri eta Berasa.

Nagore Goiburu

GABIRIA

Kultur astea igandetik aurrera

Udaleko Kultur-batzordeak eta Osinalde elkarteak antolatutik, kultur astea izango dugu aurreko ere. Honakoak dira prestatu diren ekintzak:

Apirilak 13, igandea:

9:30etan: Mendi-irteera Gabirian zehar, oinez nahiz mendi bizikletaz, herriko enparantzatik abiatuta. Txirrindulariak 10:30etan aterako dira. **17:00etan:** Herriko gazteen musika saioa, Parrokiako Antzokian.

Apirilak 14, astelehena:

20:00etan: 'Broad Peack'-mendiari buruzko filminak

Felix Goiburu eta Aitzol Telleria segurarren eskutik, Kultur Etxean.

Apirilak 14, asteartea:

20:00etan: Elikadurari eta gaixotasunei buruzko hitzaldia, Julian Bereziartua medikuaren eskutik, Udal Liburutegian.

Apirilak 16, asteazkena:

19:30etan: Haurrentzat ipuin kontaketa, Peio Añorgaren eskutik, Udal Liburutegian.

Apirilak 17, osteguna:

20:00etan: Ingurugiroari

buruzko hitzaldia Tere Jaurregizar eta Antxon Monteroren eskutik, Udal Liburutegian.

Apirilak 18, ostirala:

20:00etan: Jose Ramon Agirre 'Marron' ataundar mendizalearen eskutik 'Indonesia' gaiari buruzko diapositiba-emanaldia, Kultur Etxean.

Apirilak 19, larunbata:

17:00etan: Herriko eskulumeen antzerkia saioa: 'Gaztarik onenak... Arantzazukoak?'. Ondoren bertso eta abestiak. Guztia Parrokiako

Antzokian. **21:00etan:** XXVI. Bertsolari Gazteen txapelketa, Osinalde elkartearen.

Apirilak 20, igandea:

Meza ondoren: Goruntz dantza-taldearen saioa. **17:00etan:** Goaz antzerki taldearen 'Larrialdiak' lana, Parrokiako Antzokian.

Oharra: Asteazken zehar, Kultur Etxean I. Argazki lehiaketan aurkeztutako argazkien eta eskolako haurrek egindako marrazkien erakusketa egingo da.

Gabino Murua

Kirol berriak bi lerrotan



Gilberto Juaristi. Goierriko bola txapelketa Gilberto Juaristi legazpiarrak irabazi du. Bigarrena Xepeño Agirre segurrara izan da. 3. Ereñozuko Antonio Miner; 4. Zeraingo Antonio Alustiza; 5. Zeraingo Martin Etxaluze; 6. Legazpiko German Gereñu; 7. Legazpiko Manolo Uribe; 8. Zeraingo Luis Aizpeolea; eta 9. Beasaingo Bizente Gerra. Jubenil mailan, Andoni Katalina idiazabalدارra izan zen onena. Guztira 54 bolarik hartu dute parte. Argazkian: Xepeño Agirre, Gilberto Jauregi eta Andoni Katalina gaztea.



Ordiziako Txirrindulari Elkarte

29 txirrindulariz osatutako talde hau martxan da aurtengo denboraldian. Infantil eta alebinetan 14 txirrindulari dira Santi Osororen gidaritzapean. 1. go urteko kadeteetan 3 txirrindulari daude Joxi Garmendia eta Mariano Altuna zuzendari dituztela. 2. urteko kadeteetan 5 txirrindulari, Iñaki Telleria eta Iakes Lopez dira zuzendariak. Jubeniletan 8 gazte ari dira Urko Barriola eta Gorka Telleriaren agiduetan. Denen koordinatzaile Santi Osoro bera da.



Aitor Perez

Txirrindulari zegamarrak, 19 urterekin, profesionalekin parte hartuko du Errioxako itzulian. Olarra taldean ari da gaur egun Julian Gorosperen aginduetan. Duela 2 urte hasi bazen ere txirrindularitza munduan, aurrerapauso ederra eman du Aitorrek.

Aitor Garmendia

Itsasondoarrak, profesional bezala 8. garaipena lortu du. 'Criterium Internacional'-ko erlojuaren aurkako lasterketa irabazi du Frantzian.

Txirrindulari jubenilak

Iberdrolako Beñat Garaialde beasaindarrak, bi lasterketa irabazi berri ditu: Azpeitian eta Uzarragako igotza. Ordiziako Txirrindulari

Elkarteko Ruben Gonzalez legorretarrak ere joan zen igandean Errenteriko lasterketa irabazi zuen.

Imanol Erauskin

Ordiziar txablina jaurtitzaileak, Gipuzkoako txapelketa absolutoa irabazi du, jubenila izan arren. Negu honetan Gipuzkoako errekorra ere egin du, 62'38 metrorekin.

Ignacio Garmendia Goya

- ✓ Txatarra, altzairu txirbil eta metalen erosketa
- ✓ Neurri ezberdinetako edukiontzien zerbitzua
- ✓ Merkatuko salneurriak egokienak

Alderdieder, 1 ☎ 80 64 29 - Faxe: 80 61 14 **LEGORRETA**

Sagardotegia




aulia

Aulia-enea

☎ 80 60 66

LEGORRETA



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, iturri eta gehigarriak
- Hidromasaia bainerak eta saunak
- Subaju eta ikatz eta egurrezko sukaldeak



**Barandiaran
ZERAMIKAK**

☎ 88 79 72
**Senpere, 7
BEASAIN**

PR-G53: Ordizia-Larraskanda-Urkia-Itsasondo-Ordizia

Luzera: 12'2 kilometro.

Joaneko denbora: 3 ordu eta 15 min.

Itzulera: 3 ordu t'erdia.

Ibilbide osoa arrasto txuri eta horiz baliztua dago.

1.- Ordiziako Garagartza plazatik aterako gara. San Jose egoitzako bidetik go-
ra igo, Potxo eta Areta (gaur egun hutsik dago, 1983ko sutearen ondorioz) baserrietatik pasatuz, eta laster batean

2.- Aramendi baserrira iritsiko gara. Zementatutako pistatik jarraituko dugu, lehenengo bihurguneraino. Ezkerrera dagoen pista hartu eta ondoren eskubira egin. Hurrengo bidegurutzean eskubira jarraitu al-
dapa motz batean, gereziondo multzo batera iritsi arte. Puntu honetan eskubira hartu pago eta haritzez osatutako baso (Largarta) bateraino igoz.

3.- Largarta. Haritz, urki eta elorri inguratutako bideari jarraitu. Pinudira iristean bidezidorra mendi-leporaino jaisten da, be-

rau pisten bidegurutzea da. Zuzen jarraitu behar da igoera arinean. Eskubira erreferentzia bezala Usurbeko antena dugu. Bira pare baten eman ondoren isurialdez aldatuko dugu, aurrean Zaldibira doan harana azaltzen da. Minutu gutxira Ioiaga Behekoa eta Goikoa baserrietara iritsiko gara.

4.- Ioiaga. Bi baserrien artean putzua dago. Ipar-ekialdeko hegaletik, mehartutako bide batetik igotzen da 689 metro ingurura. Bide zati honetan zehar landaretzak tunelaren funtzioa betetzen du Larraskandako mendi-lepo ingururaino.

5.- Larraskanda. (Puntu honetan gure bideak PR-G 54rekin bat egiten du. Hau Urkiatik Murumendi alde-
ra igotzen da, ondoren Domingoko mugarriko mendi-leporaino eta ondoren berriro Urkiko Lizardi errotara jaisteko). Zuzen jarraitu eskubiko pistatik, iparralderuntz. Beste pista bat aurkitzean eskubira biratu hurrengo bihurgune-



Urkiako ermita eta plaza ondotik pasatzen da ibilbidea.

raino. Hemen urki basoa dago.

6.- Urkiak. Pista alde batera uzten da baso honetatik jaisten jarraitzeko eta garo artetik alambre sare ond-
tik langa batera iristen da. Langa pasatu eta zelai bat gurutzatuz, bigarren langa batera iristen da. Pistan behera jarraitu eta Urkia ingurura iristen gara.

7.- Urkia. Zementuzko pistatik jaitsiaz eta Saletxe Berri baserriaren ondoko ertzetik jarraitu zementua utziz. Berriro zementura ateratakoan, eskubira har-
tu hurrengo baserriak arte.

Bigarren baserriaren eskubitar gurdibidea hartzen da eta pistaren ondo-
ko erreka batera iritsiko gara. Berostegi auzo ingurura jaitsiko gara pista honetatik, N-1 zahar inguru-
ra. Lantoki batera iritsita-
koan, tentsio altuko linea elektrikoaren ondoan pista alde batera utzi, igoera arin batean. Arbela ateratzeko ahoen bidean sartzen da eta hemendik Itsasondora iristen gara Age-
re baserritik.

*Jesus Martinez, Natursen-
der, Euskal Mendi-ibili el-
karteko Lehendakaria*

GOIERRIKO ZURAK

Inportazioko egur biltegia
Ohol, aglomeratuak, e. a.

Hiribarren, z/g

☎ 88 80 23 LAZKAO

**lues
rothers**
BEASAIN

**PUB
ASTI**

Zaldizurreta kalea

☎ 88 45 06 BEASAIN

GALDOS

- Egurrezko zoruak
- Moketak
- Sintasolak
- Pintura eta barnizatuak

LENZERIA - LURRINDEGIA

Igartza Oleta, 12

☎ 88 26 89

BEASAIN

ELOLA
ALTZARIAK

Poeta Lizardi, 2
TOLOSA
Tfnoc. 65 29 01

**18
HILABETE**

Interesik gabeko finantzaketa



1954ko La Salleko ikasleak

Luis Elorzak ekarri digu argazkia. Beasaingo La Salle ikastetxean, 1954. urtean ateratakoa.

Goitik hasita, lehenengo lerroan: Unzueta, Oiarbide, Gorrotxategi, Irastorza, Tolosa, Telleria, Altolagirre, Marquinez, J. Garcia, I. Gonzalez, S. Sanchez, E. Aiesta, M. Perez eta J. Kerejeta.

2. lerroan: Lizarraga, Ventureira, M. Garcia, Rebollar, Egurza, Arg aiz, Alustiza, Cornejo, F. Herrera, eta A. Cacho.

3. lerroan: Vaquero, P. Gonzalez, P.M. Aiesta, Valdivielso, A. Lopez de Pariz, M. Larrañaga eta L. Elorza.

4. lerroan: J. A. Ibarbarriaga, F. De Miguel, E. Urbina, Aristi, Basilio, D. Cayetano, Jose, I. Mujika, Olano, Perez de Lazarraga.

5. lerroan: M.A. Lamata, C. Gereñu, A. Albaina, J. Esnaola, J.J. Mendizabal, J. Kerejeta, A. Apalategi, J.J. Etxeberria eta Cuadrado.

Go to: <http://198.227.232.134/index>

PARTIKULARRENTZAKO: Klase partikularrak ematen dira, norberaren bizilekuan zerbitzu nagusienak esplikatu: WWW orrialdeak - Korreo elektronikoa - FTP eta TELNET zerbitzuak - INTERNET barruko informazio bilaketa.	ENPRESENTZAKO: Enpresentzako WWW orrialdeak egiten dira, bertan sar daitezke larrik: - Argazkiak - Irudi bizidunak - Planoak - Bideo irudiak - Soinua - Testua...
--	---

INTERNET ZERBITZUAK

INTERESATURIK EGON EZKERO
DEITU ONDOKO TELEFONORA:
88 72 71 (IÑAKI)

URBITARTE sagardotegia



- Egunero irekita, nahiz eta sagardotegi denboraldia bukatu
- Sagardotegiko menuaz aparte arraina ere egongo da
- Berezitasuna txuleta eta sahieskietan

Erreserba telefonoa: 18 01 19

Ergoiena Auzoa ATAUN

EZKURRA ATEAK

Ateen ezartze eta salmenta
Tarima eta parketak



☎ 16 07 50 Domingo Unanue, 2
Faxa: 88 09 13 ORDIZIA

OSTASUN

BELAR ETA DIETETIKA DENDA
NATUROPATA

Eska ezazu eguna eta ordua
Goierri 10 ☎ 88 61 14 ORDIZIA



Londres, 96ko uztaila



Nick Knight

J.M. Barandiaran, 1

☎ 88 00 83 - 16 00 51

ORDIZIA

*Bizi ingelesa
berezko giroan
eta 10 urteko
esperientziak
ematen dizun
konfidantzarekin*



UDA HONETAN



Nora joan nahi duzu?

Inlinguak 260 ikastetxe ditu
21 herrialdeetan nahi duzun
hizkuntza aukeratu dezazun.



Hemen geratzen zara?

Uztailetik irailera ikastaro
trinkoak eskaintzen dizkizugu
zure herrian.

J. M. Iturrioz, 11 - 1.

☎ 16 05 72

BEASAIN

Elkano, 8 - 1.

☎ 88 11 37

ORDIZIA

Iparragirre, 8 - 1.

☎ 72 22 23

ZUMARRAGA



The Clover School of Languages



- Udan ere hemen izango gara zuri laguntzeko.
- Atzerrira joan nahi baduzu, berriz, aholkatuko zaitugu.

Domingo Unanue Plaza, 5

☎ 16 20 16

ORDIZIA